

Joseph Brodsky

# UR- MARKA

Veneziari buruzko saiakera

Itzulpena:

Rikardo Arregi Diaz de Heredia

Hitzatzea:

Angel Erro



katakarak  
liburuak





Joseph Brodsky

**UR-MARKA**

*Veneziari buruzko saiakera*



Joseph Brodsky

# **UR-MARKA**

*Veneziari buruzko saiakera*

Itzulpena eta hitzatzea: Rikardo Arregi Diaz de Heredia

Hitzatzea: Angel Erro



**katakarak**  
liburuak

Jatorrizko izenburua (1992): *Watermark. An Essay on Venice*

Egilea: **Joseph Brodsky**

Jatorrizko lizentzia: © 1992 Joseph Brodsky

Itzulpena: **Rikardo Arregi Diaz de Heredia**

Zuzenketa eta hitzatzea: **Angel Erro**

Barruko argazkia: **Tativert BY-SA 4.0**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: **2022ko otsaila**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartearen erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-67-9

Lege gordailua: NA 328-2022

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

## AURKIBIDEA

<b>UR-MARKA</b> .....	13
HITZATZEA (Rikardo Arregi Diaz de Heredia) .....	153
HITZATZEA (Angel Erro) .....	161
ARGITALETXEAREN OHARRA .....	165







CASINO  
DI VENEZIA

NAVETTA  
GRATUITA  
FREE  
SHUTTLE

CASINO  
DI VENEZIA  
CA' VENDRAMIN  
CALERGI

**WATER  
TAXI**

*Robert Morgan-i*



Orain dela ilargi asko, dolarrak 870 lirako balioa zuen eta nik hogeita hamabi urte. Globoa ere, bi mila milioi arima gutxiagorekin, arinagoa zen, eta abenduko gau hotz hartan, ni iritsi berri, *Stazione*-ko taberna hutsik zegoen. Han, zutik, zain nengoen hirian ezagutzen nuen lagun bakarra noiz etorriko nire bila. Emakumea nahiko berandu iritsi zen.

Bidaiari guztiek ezagutzen dute estatusuna: nekearen eta beldurraren arteko nahasketa. Erlojuei eta ordutegiei adi-adi begiratzeko garaia da orduan, oin azpiko marmol barizeduna ikertzekoa, amoniakoa eta lokomotorretako burdinak neguko gau hotzetan isuritzen duen usain hits hori arnastekoa. Hori guztia egin nuen.

Tabernaria, aho zabalka, eta kutxa atzean Buda baten pare geldirik zegoen *matrona* kenduta, ez zen inor gehiago ikusten inguruan. Halere, ezin genuen gauza handirik egin elkarri laguntzeko: haien hizkuntzan nuen kapital bakarra, «espresso» hitza, xahututa nuen dagoeneko, bi aldiz erabili eta gero. Erosia nien, halaber, hurrengo urteetan «*Merda Statale*», «*Movimento*

*Sociale*» eta «*Morte Sicura*» irudikatzena iritsiko litzatekeen nire MSko lehen zigarreta paketea. Maletak jaso eta kanpora atera nintzen.

Norbaiten begiak nire London Fog zuria eta nire Borsalino marroi iluna ikusi izan balitu halabeharrez, irudi ezagun bat topatuko luke haiei esker. Izan ere, gauak berak ez luke zailtasun handirik behar izango nire irudia xurgatzeko. Mimetismoa, nire ustez, goian dago edozein bidaiariren zerrendan, eta une hartan gogoan nuen Italia berrogeita hamarretako film zuri-beltzekoen eta nire lanbidearen giro era berean kolorebakarraren arteko uztarketa zen. Negua, beraz, nire urtaroa zen; bertako bohemio edo *carbonaro* bat emateko falta zitzaidan gauza bakarra, pentsatu nuen, bufanda bat da. Horretaz aparte, neure burua oharkabean pasatzen sentitu nuen, hondoarekin bat egiteko gai, edo fotograma bat betetzeko aurrekontu txikiko polizia-istorio batean edo, ziurrago, melodrama batean.

Haize handia zebilen, eta nire erretinak zerbait jaso baino lehen, erabateko zoriontasunaren sentazioak hartu ninduen guztiz: itsas belar izoztuen usainak, niretzat zoriontasunaren sinonimoa beti izan denak, bete zizkidan sudurzuloak. Batzuentzat belar berri moztua izan daiteke edo belar ondua; beste batzuentzat pinu orratzen eta mandarinen eguberri-lurrina. Niretzat itsas belar izoztuak dira: batetik ura eta landaretza batzen dituen hitzaren alde onomato-peikoagatik (errusieraz itsas belarra *vodorosli zoragarria* da), bestetik hitzak berak dakarren desegokitasun arinagatik eta urpeko drama ezkutuagatik. Bakoitzak osagai batzuei esker ezagutzen du bere burua; *stazione*-ko eskaileretan usain hori arnastu nuen unean bertan drama ezkutuak eta desegokitasunak ziren aspaldidantik nire indargunea.

Dударик gabe usain horrekiko lilura egotzi behar zitzaion Baltiko ondoan, Montalaren poeman agertzen den sirena alderrai haren etxean, igarotako haurtzaroari. Eta, halere, zalantzak nituen azalpen horretaz. Hasteko, haurtzaro hura ez zen hain zorion-



tsua izan (haurtzaroa gutxitan da horrelakoa, gehiago da auto-gorrotoaren eta segurtasun ezaren eskola); eta bestetik, Baltikoa dela eta, aingira izan beharra zegoen Baltikoko nire bazterretik ihes egiteko. Nolanahi ere, horrelako haurtzaroa nostalgia gai bilakatzea zaila zen. Lilura horren jatorria, hala sentitu dut beti, beste nonbait zegoen, biografiaren mugetatik haratago, norberaren egitura genetikotik haratago, hipotalamoko lekuren batean, non bilduta baitaude gure arbaso kor-datuek beren inguruneaz zeuzkaten inpresioak: gure zibilizazioari hasiera eman zion lehen *ichtus* berberarenak, adibidez. *Ichtus* hura zorionsua zen ala ez beste kontu bat da.

Usain bat, azken buruan, oxigenoaren oreka bortxatzea da, elementu hori inbaditzen dute beste elementu batzuek, metanoak?, karbonoak?, sufreak?, nitrogenoak? Inbasio horren intentsitatearen arabera, lurrin bat, usain bat, kirats bat sortzen da. Molekula kontua da, eta zoriontasuna, nire ustez, norbera osatzen duten elementuak aske daudela deskubritzen den unea da. Hor kanpoan baziren elementu horietako asko, guztiz aske, eta neure autorretratuan sartzen ari nintzela sentitu nuen aire hotz hartan.

Hondo-irudiaren gainean elizetako teilatu eta kupulen silueta ilunak pilatzen ziren; zubi batek arkuak osatzen zuen ur-laster bateko bihurtune beltzaren gainean, bi muturrak infinitura iristen zirelarik. Gauez, atzerrian, infinitua azken kale-argiarekin batera hasten da, eta hemen hogeit metro baino ez ziren. Oso lasai zegoen dena. Noizbehinka ontzi urri argiztatu gutxi batzuk igarotzen ziren, ontziek beren helizeekin asaldatzen zuten CINZANO neoi handi baten isla, ur azaleko olio geruza beltzean berriro finkatzen saiatzen zena. Hori lortu baino askoz lehenago, isiltasuna itzuliko zen.



Probintziaren batera iristen ari nintzela ematen zuen, leku ezezagun eta ez-deus batera, norberaren jaioterra beharbada, urte asko kanpoan eman eta gero. Neurri handi batean neure anonimotasunari zor nion sentrazio hori, *stazione*ko eskaileretan zegoen irudi bakarti baten desegokitasunari: jomuga erraza ahanzturarako. Era berean, negu gaua zen. Eta aspaldian, aurreko berraragitze batean, errusierara itzuli nituen Umberto Sabaren poemetako baten hasierako lerroa gogoratu nuen: «Adriatiko zakarraren sakonean...». Sakonean, pentsatu nuen, lekutako puntan, Adriatiko zakarraren txoko galdu batean... Burua biratu izan banu, *stazionea* ikusiko nukeen, haren neoizko bikaintasun hiritar eta zuzen osoarekin, VENEZIA ikusiko nukeen letra handitan. Baina ez nuen egin. Zerua negu izarrez beterik zegoen, probintzietan ohikoa den bezala. Edozein unetan, antza, zakur batek zaunka egin zezakeen urrutian edo oilar bat entzun zitekeen. Begiak itxita, itsas belar izoztu azao bat ikusi nuen harri —izotzak beiratua agian— heze baten gainean barreiaturik, edonon unibertsoan, haren egonguneaz ahaztuta.

Harria ni nintzen eta nire ezkerreko ahurra zen itsas belar azao barreiatu hura. Orduan ontzi handi lau bat, sardina-lata baten eta sandwich baten arteko gurutzaketa modukoa, ezerezetik agertu zen, ontziak danbada batez stazioneko kaiaren kontra jo zuen. Eskukada bat jende lehorreratu zen deblauki, eta nire aurretik pasatu korrika eskaileretan gora geltokirantz. Orduan hiri hartan ezagutzen nuen pertsona bakarra ikusi nuen; ikuskaria zoragarria izan zen.

Urte batzuk lehenago ikusia nuen lehen aldiz, aurreko berraragitze horretan bertan, Errusian. Ikuskaria eslavista mozorropean iritsi zen haraino, Maiakovskiren lanean aditua, zehatza izateko. Hori zela eta, ni partaide nintzen taldearen begietan ikuskaria interes osoa galtzeko zorian egon zen. Baina horrek ez zuen haren bertute ikusgarrien neurria ematen. Metro bat laurogei, argala, hanka luzeduna, aurpegi fina, gaztaina-koloreko ilea, begiak hur edo arbendola formakoak, baleko errusiera irribarre itsugarria erakusten zuten ezpain bikain haietan, ezin hobeki jantzita papeira bezain arina zen antez, eta ondo ematen zuen zetaz, guretzat ezezaguna zen perfume liluragarrian bildua, ikuskaria zen gure artean horrelako oin zirraragarriarik inoiz jarri zuen emakumerik dotoreena. Gizon ezkonduen ametsak heze mantentzen dituen motakoa zen. Veneziarra zen, gainera.

Horregatik garrantzi gutxi eman genien Italia-ko Alderdi Komunistaren kide izatearen kontuari eta hogeita hamarreko gure abangoardiakume xaloe- kiko sentimendu ondoriozkoari, mendebaldeko fribolita-

teari egotzi genizkion biak. Ageriko faxista izan balitz ere, uste dut ez genukeela gutxiago desiratu. Harrigarria zen benetan, eta, geroago, gure taldeko periferian zegoen ergelik txarrenaz, armeniar jatorriko kirten ondo ordaindu batez, maitemindu zenean, gu guztion erantzuna txundidura eta haserrea izan zen, jelsia edo gizon-atsekabea bainoago. Jakina, ondo pentsatuta, ez dago zertan haserretu zuku etniko gogorrek zikindutako parpaila fin zati batekin. Baina egin genuen. Zeren desilusioa baino gehiago baitzen: oihala traizionatzea zen.

Egun haietan estiloa mamiarekin lotzen genuen, edertasuna adimenarekin. Azken buruan, talde liburu-zalea ginen eta, adin jakin batean, literaturan sinesten badu batek uste izaten du guztiek ideiak eta gustuak partekatzen dituztela, edo partekatu beharko lituzketela. Norbaitek dotorea badirudi, orduan gutarra da. Xaloak kanpoko munduarekiko, batez ere mendebaldearekiko, ez genekien oraindik estiloa eros zitekeela handizka, edertasuna salgai hutsa izan zitekeela. Beraz, ikuskaria gure ideal eta printzipioen hedadura fisikoa eta haragitzea izango balitz bezala aztertzen genuen, eta janzen zuenak, gauza gardenak barne, zibilizazioa erakusten zuen.

Hain zen indartsua lotura hori, eta hain ederra ikuskaria, ezen, oraindik, urte asko geroago, beste adin batekoa eta, nolabait esateko, beste herrialde batekoa, hasi nintzela manera zaharretara lerratzen konturatu gabe. Beroki igaraba larruzkoaren kontra estututa jendez beteriko vaporetoko gainaldean galdetu nion lehen gauza izan zen zer iritzia zuen Montale-ren *Moteteak* liburu argitaratu berriaz. Haren hogeita hamabi perla ezin ederragoen distira ezaguna, hur formako begi-nini ertzaren dirdirak islatua eta hor goian Esne

Bideko zilar sakabanatuetara igoa, izan zen erantzun bakarra, baina asko zen. Beharbada, zibilizazioaren bihotzean, berrienaz galdetzea tautologia bat zen. Beharbada jendetasunik gabe ari nintzen, idazlea ez baitzen bertakoa.





Ontziaren aurreratze motela gauaren erdian subkontzientea zeharkatzen duen pentsamendu koherente baten igarotzea bezalakoa zen. Bi aldeetan, ikatza bezalako ur beltzetan belaunetaraino sartuta, *palazzi* ilunen kutxa eskerga zizelkatuak altxatzen ziren, altxor neurtezinez beterik, urrea seguruenik, ikusita pertsianetako zirrikituetatik noizbehinka ateratzen zen intentsitate txikiko distira elektriko larua. Sentipen orokorra mitologikoa zen, ziklopeena, zehazkiago: *stazione*ko eskaileretan ikusi nuen infinitu horretan sartu eta orain biztanleen artean mugitzen nintzen, ur beltzetan bermaturik noizbehinka betazal bat igo eta jaisten zuten ziklope loti saldo haren ondoan.

Ikuskariak, igaraba larruan bildua nire alboan, azaldu zidan ahapetik hotelera eramango ninduela, bertan logela erreserbatua zidala, bihar edo etzi elkartuko ginela agian, gustatuko litzaiokeela senarra eta ahizpa niri aurkeztea. Atsegin nuen haren ahots isila, nahiz eta gauari gehiago egokitu mezuari baino, eta tonu konspiratzaile bera erabiliz erantzun nion beti dela atsegina senide izan litezkeenak ezagutzea.

Gogorregia zen agian une hartarako, baina barre egin zuen, ahapetik modu isilean, eta eskua, eskularru marroia, ezpain gainean jarri zuen. Inguruko bidaiariak geldirik zeuden, gehienak ile beltzekoak eta asko izategatik gure arteko gertutasunaren erantzule; eta elkarri zerbait esan behar ziotenean, ahapetik egiten zuten haiek ere barne kontuez arituko balira bezala. Orduan, une batez, zubi baten marmolezko parentesi eskergak ilundu zuen zerua, eta bat-batean dena argiz bete zen. «Rialto» esan zuen berak ahots arruntez.

Ur gainean bidaiatzeak, baita ibilbidea laburra denean ere, badu zerbait funtsezkoa. Jakinarazten zaizu ez zenukeela hor egon behar, ez hainbeste begi, belarri, sudur, aho sabai edo esku ahurren bidez, oinen bidez baizik, eta oinak arraro sentitzen dira zentzumen organo gisa jokatuz. Urak horizontaltasunaren printzipioa eztabaidan jartzen du, gauez batez ere, ur azalak zorua ematen duenean. Ez dio axolarik zein sendoa den oin azpian duzun ordezkoa —ontzigaina—, ur gainean lehorrean baino erneago zaude, prestuago dituzu zentzumenak. Ur gainean, esate baterako, ez zoaz kalean bezala arreta jarri gabe: hankek mantentzen zaituzte zu eta mantentzen dituzte zure zentzumenak oreka etengabea, konpas bat bazina bezala. Tira, beharbada, ur gainean bidaiatzen zaren bitartean, zentzumenak zorrotzen dituen da kordatu zahar onaren oihartzun urruti eta zeharkakoa. Nolanahi ere, ur gainean areagotu egiten da besteaz duzun pertzepzioa, arrisku komun zein elkarrekiko batek indarturik balego bezala. Norabidea galtzea kategoría psikologikoa da, kategoría nautikoa den bezainbeste. Edonola ere, hu-

rrengo hamar minutuetan, norabide berean gindoazen arren, konturatu nintzen hiri hartan ezagutzen nuen lagun bakarraren gezia eta nirea elkarrengandik aldentzen ari zirela 45 graduz gutxienez. Seguruenik, *Canal Grandeko* alde hori hobeto argiztaturik zegoelako.

*Accademiako* kaian lehorreratu ginen, topografia sendoan eta zegokion kode moralean preso biak. Kaleka estuetan barrena meandro bezalako ibilbide laburra egin ondoren, komentutik zerbait zuen *pensione* bateko sarreran utzi ninduen, musu bat masailean —*Minotauro* gisa, sumatu nuen, heroi ausart gisa baino gehiago— eta gau onak eman zizkidan. Orduan nire *Ariadna* desagertu zen, atzean utzirik haren perfume (*Shalimar?*) garestiaren hari lurrintsu bat, azkar galdu zena *pensioneko* giro lizundu eta, gainera, txizaren usain ahul baina nonahikoak hartuan. Une batez altzariei begiratu nien. Ohera joan nintzen.

Horrela aurkitu nuen nire burua lehen aldiz hiri honetan. Laburbilduz, nire iritsiera dela-eta, ez zen ezer bereziki zorionekorik gertatu, ezta ezer zorigaiztokorik ere. Gauak zerbait iragarri bazuen, hori zen ni ez nintzatekeela inoiz hiriaren jabe izango; baina ez nuen sekula eduki horrelako asmorik. Uste dut gertaera hori nahikoa izango dela hasteko, hiri-hartan-ezagutzen-nuen-lagun-bakarrari dagokionez harremanaren bukaera seinalatzen duen arren. Geroago, bitan edo hirutan ikusi nuen Venezian egon bitartean; eta, geroago ere, ahizpa eta senarra aurkeztu zizkidan. Lehena emakume xarmagarria zen: nire Ariadna bezain altua eta argala eta beharbada distiratsuagoa, baina malenkoniatsuagoa eta, jakin nuenez, are ezkonduagoa. Azkena, haren itxurak ihes egin dit oroimenetik erabat erredundantzia arrazoiengatik, kaka-arkitekto bat zen, gerraosteko sekta ikaragarri horretakoa, Europako paisaiari edozein Lutwaffek baino kalte handiagoa egin diona. Venezian *campo* pare bat profanatu zituen bere eraikuntzekin, banku bat tarteko, nola ez, zeren giza animalia mota horrek bankuak maite baititu debozio

guztiz nartzisistarekin, ondorio batek bere kausarekiko sentitzen duen irrika berberarekin. «Egitura» hura (horrela deitzen zioten egun haietan) egin izanagatik bakarrik, pentsatu nuen, merezi zuen adarrak edukitzea. Baina, emaztea bezala, bera ere, antza, Alderdi Komunistako kidea zenez, erabaki nuen hobe zela lana burkide bati uztea.

Gehiegizko adeitasun hori nire erabakiaren osagai bat izan zen; bestea hiri-hartan-ezagutzen-nuen-lagun-bakarrari telefonoz deitu nionean, apur bat beranduago, nire labirintoko sakonetik ilunabar urdin batean, arkitektoak, nire italiara mordoiloan zer-bait desatsegina hautemanez, komunikazioaren haria eten zuela. Beraz, orain kontua Armeniako gure anaia gorriena zen.

Geroago, esan zidatenez, emakumea dibortziatu eta Estatu Batuetako Aire Armadako pilotu batekin ezkondu zen, pilotua ni behin bizi izan nintzen Michigango estatu handiko herri txiki bateko alkatearen iloba zen. Mundua txikia eta bizitza luzea izan arren, ez dago gizonik ez emakumerik handiago egingo duenik. Hala, kontsolamendua bilatuko banu, lortuko nuke agian pentsatzen badut biok zapaltzen ari garela orain lurzoru berbera: kontinente desberdin batekoa. Horrek, jakina, Publio Estazio ematen du Virgilioz mintzatzen, baina ni bezalakoei bakarrik bururatzen zaie Estatu Batuak Purgatorio modukotzat hartzea, esan gabe Dantek berak hainbeste iradoki zuenik. Desberdintasun bakarra da emakume haren zerua nirea baino askoz hobeto finkatuta dagoela. Hortik nire ibilerak berak, hain modu atseginean, ireki zidan Paradisuko nire bertsioan. Edonola ere, azken hamazazpi urteetan hiri-ira itzuli naiz, edo bertan berragertu, amets txar baten maiztasunarekin.

Nire edo beste norbaiten bihotzeko edo antzeko larrialdiengatik erruz bizpahiru alditan izan ezik, Egu-



berriak iristen direnean edo pixka bat lehenago tren / hegazkin / ontzi / autobus batetik jaitsi naiz, eta idazmakina eta liburuz betetako maleta astunak eraman ditut hotel edo apartamentu honetako edo horretako atariraino. Apartamentuarena, normalean, ikuskaria desagertu eta gero, hemen egin nuen lagun pare baten eskaintza izan da. Geroago, saiatuko naiz nire egutegi hori argitzen (horrelako asmoa tautologikoa bada ere, berau baliogabetzeko punturaino). Oraingoz, gus-tatuko litzaidake adieraztea, iparraldekoa izanda ere, Paradisuari buruzko nire ideia ez dagoela eguraldiaren edo tenperaturaren mende. Era berean, biztanleak baztertzen ditut, baita eternitatea ere. Doilorkeriaz akusatuta izateko arriskupean, aitortu behar dut ideia horrek ikuste hutsarekin duela zerikusia, Claude Lorrain-ekin zerikusi handiagoa duela fedearekin baino, eta hurbilketa bidez bakarrik existitzen dela. Hurbilketei dagokienez, hiri hau da gertuena. Benetako konparazioa egiteko eskubiderik ez dudanez, murriz-tailea izan naiteke.

Hemen eta orain esaten ari naiz hau irakurleari desilusioak aurrezteko. Ez naiz moralista (nire kontzientzia orekan mantentzen saiatzen naizen arren), ezta jakintsua ere; ez naiz esteta, ezta filosofoa ere. Gizon urduri bat baino ez naiz, zirkunstantziek eta nire ekintzek beharturik; baina begiralea naiz. Nire Ryunosuke Akutagawa maiteak behin esan zuen bezala, ez dut printzipiorik; dudan guztia nerbioak dira. Hurrengo orrialdeek, beraz, zerikusi handiagoa dute begiarekin sineste sendoekin baino, kontakizun bat nola gauzatu zehazten duten sineste horiek barne. Begia lumaren aurretik doa, eta nik erabaki dut ez diodala nire lumari bere lekuaz gezurrik esaten utziko. Doilorkeriaz akusatuta izateko arriskua behin hartuta, ez diot mu-

zin egingo azalekotasunez akusatuta izateari. Azalak —begiak jasotzen duen lehendabizikoa— edukiak baino adierazgarriagoak dira askotan, edukiak definizioz behin-behinekoak baitira, salbu eta, jakina, hil ondoko bizitzan. Hiri honen aurpegia hamazazpi urtez arakatu ondoren, gai izan beharko nuke orain Poussin-enak bezalako lan sinesgarri bat burutzeko: leku honen irudia margotzea, lau urtaroetan ez bada, gutxienez eguneko lau unetan.

Horixe da nire anbizioa. Desbideratzen banaiz, izango da hemen desbideratzea egunerokotasunaren parte delako hitzez hitz, urak egiten duena baita. Ondoren datorrena, bestela esateko, baliteke istorio bat izatera ez iristea, ur lohitsu jarioa baino ez da izango «urteko garairik okerreanean». Batzuetan urdina dirudi, beste batzuetan grisa edo marroia; beti da hotza, eta ez da ona edateko. Iragazteko lana hartu dut islak dauzkalako, haien artean neurea.



Berez bizigabe, hoteleko geletako ispiluak are hitsagoak dira hainbeste jende ikusi eta gero. Itzultzen dizutena ez da zure identitatea, zure anonimotasuna baizik, batik bat hiri honetan. Zeren hemen zu zeu baitzara ikustea axola zaizun azken gauza. Nire lehen egonaldietan harrituta sentitu nintzen askotan nire burua, jantzita edo biluzik, armairu irekian harrapatzen nuenean; denbora gutxiren buruan harritzen hasi nintzen hiri honek norberaren autokontzientzian dituen ondorio paradisuzkoez edo hil ondoko bizitzarekin lotutakoez. Noiz edo noiz, gehiegizko erredundantziari buruzko teoria bat ere garatu nuen, ispiluari buruzkoa, zeinak xurgatzen duen gorputza, zeinak xurgatzen duen hiria. Emaidza garbia, jakina, elkarrekiko ukazioa da. Isla bati ez zaio beste isla bat axola. Hiria nahikoa nartzisista da zure gogoan amalgama bilakatzeko, burua sakontasun guztietatik arintzeko. Diru-zorroan antzeko eragina dutelarik, *pensione* eta hotelak oso atseginak izan daitezke. Bi asteko egonaldiaren ondoan —baita behe-denboraldiko prezioekin ere— sosik gabeko eta ezaxola bihurtzen zara, fraide budista baten antzera.

Adin jakin batean eta lan-ildo jakin batekin, ezaxolatasuna ongietorria da, premiazkoa ez esatearren.

Orain horretaz hitz egitea alferrik da, jakina, neguan axeri axkar deabruzkoek hotel txikien bi herenak ixten baitituzte; gainerako herenak begiak arranpalo jartzen dizkizuten udako prezioei eusten die urte osoan. Zorionekoa bazara, apartamentu bat aurki dezakezu, jabearen gustuekin datorrena berez, jakina, margoak, aulkiak, errezelak, eta bere bainugelako ispilua legez kontrako sentsazio lauso bat sortuko du zure aurpegian, laburbilduz, erakutsiko du zehazki galdu nahi zenuena: zu zeu. Hala ere, negua urtaro abstraktua da: koloreak moteldu, baita Italian ere, eta egun laburren eta hotzaren legeak ezartzen ditu. Gauza hauek kanporantz zuzentzen dizute begia, gauez zure aurpegiera ikusteko aukera ematen dizun bonbilla elektrikoarena baino intentsitate handiagoz. Urtaro honek ez baditu nahitaez zure nerbioak baretzen, senaren mendean jartzen dizkizu behintzat; tenperatura baxuetan edertasuna edertasuna *da*.

Dena dela, ez nintzateke inoiz hona udan etorriko, ezta pistola eskuan mehatxatuko banindute ere. Beroa gaizki eramaten dut; are gaizkiago hidrokarburoen eta galtzarbeen isuri kontrolgabeak. Praka motzetan doazen saldoek, batez ere alemanez irrintzi egiten dutenek, neure onetik ateratzen naute, beren, guztien, anatomiaren gutxiagotasunagatik zutabe, pilastra eta estatuekin erkatzen bada; beren mugikortasunak —eta beharrezko erregaiak— marmolaren egonkortasunaren aurka jaurtitzen duten guztiagatik. Uste dut aldaketa baino aukera nahiago duten horietakoa naizela, eta harria beti da hautu bat. Hiri honetan gorputzak, berdin dio zein ederra den, jantziek estalita egon beharko luke, nire iritziz, besterik ez bada ere, mugitzen delako. Jantziak dira beharbada marmolak egindako aukerara hurbiltzen gaituen bakarrak.

Hori, pentsatzen dut, muturreko ikuspegia da, baina iparraldekoa naiz. Urtaro abstraktuan bizitzak gainerako urtaroetan baino errealagoa dirudi, baita Adriatikoa ere, neguan dena gogorragoa delako, soilagoa. Edo hartu hori guztia propaganda gisa boutique

veneziarren alde, zeinek pagotxa izugarria baitute tenperatura jaisten denean. Neurri batean, neguan, noski, arropa gehiago behar delako bero egoteko, azala berritzeko beharrizan atabikoaz ez mintzatzearren. Baina ez dago hona etortzen den bidaiaririk ordezeko jertse, jaka, gona, alkandora, praka edo blusarik gabe, Venezian kanpotarrek zein bertakoek, biek ala biek, aldez aurretik dakitelako erakusgai egongo direla.

Ez, hankabikoak Venezian txoratu egiten dira erosketekin eta janzkerarekin, ez oso arrazoi praktikoengatik; hiriak, nolabait esateko, erronka jo dielako egiten dute hori. Guztiok ditugu mota guztietako susmoak gure itxuraren edo anatomiaren akatsei buruz, gure hazpegiengatik inperfekzioez. Hiri honetan urrats, bira, bihurtune, angelu, kalezulo bakoitzean ikusten denak norberaren konplexu eta ziurtasun gabeziak okerragotzen ditu. Horregatik edozeinek —emakumezkoak batez ere, baina gizonezkoak ere bai— hona iritsi bezain laster, dendetara jotzen du gogo-gogotik. Inguratzen gaituen edertasuna hain da handia, ezen berehala pizten baita norberaren baitan harekin bat egiteko animalia-desira ulergaitza, maila berean jartzekoa. Horrek ez dauka zerikusirik banitatearekin, ezta hemen dagoen ispilu soberakin naturalarekin, ispilu nagusia ura bera izanik. Kontua da soilik hiriak eskaintzen diela hankabikoei ikusmen-nagusitasunaren ideia bat, ez dagoena haien zulo naturaletan, haien ohiko inguruetan. Horregatik hegan egiten du larruak hemen, anteak, zetak, lihoak, artileak eta beste edozein ehun motak bezala. Etxera itzultzean, jendeak harriduraz begiratzen dio hemen erosi duenari, jakinik oso ondo haien jaioterrietan ez dagoela lekurik erosteta horietaz harrotzeko, bertakoak eskandalizatu gabe. Gauza horiek armairuan gorde behar dituzu kolorea

galdu eta zimeltzen, edo bestela senide gazteagoei eman. Lagunak ere badira. Nik, kasurako, gogoan dut hainbat gauza erosi nuela hemen —kredituan, jakina—, baina geroago ez nuen gibelik izan erabiltzeko. Tartean baziren bi gabardina, ziape berdea bata eta kaki tonu leunekoa bestea. Geroago bi lagunen sorbaldak apaintzera joan ziren, munduko ballet dantzaririk onenarenak, eta hau idazten ari naizen hizkuntzak duen poetarik onenarenak, nahiz eta bi jaun horiek ni ez bezalakoak izan, ez tamainan ez adinean. Hemen go bisten eta ikuspegien eragina da hori, zeren hiri honetan gizaki bat silueta bat baita haren ezaugarri bereziak baino gehiago, eta silueta bat hobetu daiteke. Eta marmol hau guztia, inkrustazioak, kapitelak, erlaitzak, erliebeak, eta moldurak, horma-hobi beteak eta hutsak, santuak, santuak ez direnak, birjinak, aingeruak, kerubinak, kariatideak, frontoiak, balkoiak beren hanka zabalak altxaturik, leihoak beraiek, gotikoak edo moriskoak, den-denak handiuste bilakatzen zaitu. Zeren hau begiaren hiria baita; gainerako zentzumenek bigarren mailako papera ahula baino ez dute. Bertako fatxadetako ñabardurak eta erritmoak olatuen kolore eta forma beti aldakorrak leuntzen saiatzen diren moduak, berez, bidali ahal zaitu bufanda dotore edo gorbata edo dena delakoa erostera; era berean, modu hori bera gai da mutilzahar aspaldiko bat erakusleihen bati itsasteko, soineko koloretsu deigarri horiek ikusteko, ez aipatzeagatik txarolezko oinetakoak eta antezko botak, hor barreiatuak mota guztietako ontziak bezala *laguna*-ren gainean. Begiak nolabait susmatzen du gauza horiek guztiak moztu dituztela kanpoko bistak egiteko erabili den oihal berberetik, eta ahanzten ditu etiketa begi-bistakoak. Azken analisisa egitean begia ez dabil oso oker, hemen guzti-guztiaren xedea ikusia



izatea delako. Azken-azken analisisan, hiri hau kor-  
datuaren garaipean benetakoa da, zeren begiak, gure  
organo gordin bakarrak, arrain gisakoak, igeri egi-  
ten baitu hemen benetan: jauzi egin, hegalei eragin,  
kulunkatu, murgildu, harilkatu. Haren gelatina ageri-  
koak atsegin atabikoa hartzen du *palazzi*, orratz-takoi,  
gondola eta abarrekin, azal existentzialera eraman  
duen bitartekari horietan bere buruari soil-soilik  
antzemanez.

Hiri honetan neguan, batez ere igandetan, kanpai kontaezinen dilin-dalanek esnatzen zaituzte, gazazko errezelen atzean portzelanazko te-joko erraldoi batek zilarrezko erretilu batean dardara egingo balu bezala zeru gris argiaren azpian. Leihoa irekitzera joaten zara eta bat-batean gelara kanpai-hotsez betetako lainoa sartzen da kanpotik, alde batetik oxigeno hezea dena, eta bestetik kafea eta otoitzak. Berdin dio zer pilula mota, eta zenbat, irentsi behar duzun goizetan, sentitzen duzu dena ez dela oraindik zuretzat bukatu. Berdin dio, era berean, zein autonomoa zaren, zenbat aldiz traizionatu zaituzten, zein sakona eta etsigarria den zure buruaz duzun ezagutza, onartzen duzu badagoela oraindik itzaropena zuretzat, edo gutxienez etorkizun bat. (Itzaropena, Francis Bacon-ek zioen, gosari ona da baina afari txarra.) Baikortasun hori lainotik dator, lainoan bertan dagoen otoitzetik, batez ere gosaltzeko ordua bada. Horrelako egunetan hiriak portzelanazko itxura hartzen du benetan, teontzi edo katilu irauliak ematen dituzten kupula zinkez estalitako horiekin guztiekin, eta koilara abandonatuen

antzeratintin egin eta zeruan urtzen diren *campanileen* profil makurtuekin. Kaio eta usoez ez mintzatzearren, orain erdigunean nabari, orain airean galdu. Esan behar dut leku hau eztei-bidaietarako ona den arren, askotan pentsatu izan dudala probatu beharko litzatekeela dibortzioetarako ere, prozeduraren hasieran egon edo jadanik bukaeran. Ez dago hondo-irudi hoberik estasia desager dadin; arrazoia eduki ala ez, egoista bat ezin da luzaroan izarra izan hemen, zeren kristalezko urak inguraturiko portzelana honek protagonismo guztia lapurtzen baitio. Badakit, noski, egin ditudan iradokizun horiek ondorio penagarriak izan ditzaketela hoteletako prezioetan, baita neguan ere. Hala ere, jendeak bere melodrama maite du arkitektura baino gehiago, eta ez dut uste mehatxatuta nagoenik. Harrigarria da edertasuna psikologia baino gutxiago balioestea, baina horrela den bitartean, hiri honetako prezioei aurre egin ahal izango diet, horrek nire egunen amaierara arte esan nahi du, eta etorkizunaren ideia eskuzabalari bide egiten dio.

Begiratzten duguna gara, neurri batean behintzat. Erdi Aroko sinesmena, seme-alaba ederrez erditu nahi duen emakume haurdunak gauza ederrei begiratu behar diela zioena, ez da hain inozoa, aintzat hartzen bada hiri honetan amesten diren ametsen kalitatea. Gauak hemen pobreak dira amesgaizto kontuetan; iturri literarioei kasu egiten badiegu, jakina (batez ere amesgaiztoak direlako iturri horien elikagai nagusia). Noranahi ere doala, gizon gaixo bat, bihotzeko gaixo bat bereziki, kondenatuta dago noizean behin goizeko hiruretan esnatzera guztiz izututa, pentsatuz hiltzen ari dela. Hala ere, jakinarazi behar dut ez zaidala inoiz hemen horrelakorik gertatu; nahiz eta, hau idazten ari naizen bitartean, hatzak eta behatzak gurutzatuta izan.

Badira bide hobeak, zalantzarik ez, ametsak manipulatzeko, eta zalantzarik gabe badira argudio onak horretarako bide gastronomikoak erabiltzearen alde. Hala ere, estandar italiarren arabera, hemengo dietak ez du aparteko ezer hiriko edertasun ametsezko kontzentratuarekin alderatuz gero; fatxadak soilik kontuan

hartuz nabarmena da alderaketa. Zeren, poetak esan bezala, ardurak ametsetan hasten baitira. Edonola ere, arkitektoen *blueprint* edo plano urdinetako asko, hitz egokia hiri honetarako, iturri horretatik, ametsetatik, sortu ziren, errealitatean ez baitago ezer haiekin lotuta egon daitekeenik.

Poeta batek «ohean» bakarrik esango balu, berdin balioko luke. Arkitektura, ziur aski, haragizkotasun gutxien duen Musa da, eraikin baten printzipio angeluzuzenak, haren fatxadarenak bereziki, borrokatu egiten baitu —eta sarritan zorrotz— zure psikoanalistak hodei edo olatu —ez emakume— formako erlaitz, *loggia* eta abarrei buruz egiten dituen interpretazioen aurka. Plano bat, azken batean, haren analisiak baino argiago da. Hala ere, hemen *frontone* batek baino gehiagok ohe, goizez edo arratsalde, desegin baten gainean altxatzen den oheburua gogorazten dizu zehatz-mehatz. Liluragarriagoak dira oheburu horiek ohe horietako eduki balizkoa baino, zure maitearen anatomia baino, zeinaren abantaila bakarra hemen zalutasuna edo beroa izan baitaiteke.

Zerbait erotikoa baldin badago plano horietako emaitza marmolezkoetan, begi trebatuaren sentsazioa da haietako edozeinetan pausatzean, hatz-mamien sentsazioa bezalakoa da zure maitearen bularra edo, are hobeto, sorbalda lehen aldiz ukitzean. Sentsazio teleskopikoa da, beste gorputz baten existentziaren infinitu zelularrarekin harremanetan jartzen zaituena, samurtasun bezala ezagutzen dugun sentsazioa, proportzionala agian gorputzak duen zelula kopururakiko. (Mundu guztiak ulertuko luke hori, freudianok izan ezik, edo beloan sinesten duten musulmanek. Baina, bestaldetik, horrek azal dezake zergatik dagoen hainbeste astronomo musulmanen artean. Gainera,

beloa jendartea planifikatzeko tresna handia da, emakume bakoitzari gizon bat ziurtatzen baitzaio edozein duela itxura. Okerrenean ere, lehen gaueko talka biontzat antzekoa izango dela garantizatzen du. Hala ere, nahiz eta Veneziako arkitekturan ekialdeko motiboak ugariak izan, musulmanak dira hiri honetan bisitari bakanenak.) Nolanahi ere, edozer dela lehena —errealitatea ala ametsa—, badirudi hiri honetan hil ondoko bizitzaren ideia ondo babestua dagoela haren ikusmentestura nabarmen paradisuazkoari esker. Gaixotasunak, berez, ez du axola zein larria izan daitekeen, ez dizu hemen ikuskizun infernuzkorik erakutsiko. Aparteko neurosia beharko zenuke, edo bekatu metaketa ezohikoa, edo biak batera, amesgaiztoen preso izateko leku hauetan. Posible da hori gertatzea, noski, baina ez sarriegi. Oso ondo lo egiten da hiri honetan, oinak asko nekatzen direlako, eta oin nekatuek gogo asaldatua zein kontzientzia erruduna baretzen dituzte.



Beharbada Ahalguztidunaren existentziaren probarik onena da ez dakigula noiz hilko garen. Beste hitzetan esanda, bizitza giza-afera baino izango ez balitz, edonori jaiotzean eperen bat, edo sententziaren bat, emango litzaioke zehatz-mehatz adieraziz bakoi-tzaren iraupena edo presentzia hemen: presondegietan egiten den bezalaxe. Horrela ez gertatzeak iradokitzen du afera ez dela guztiz gizatiarra; ideiarik ere ez dugun zerbaitek, kontrolatzen ez dugun zerbaitek esku hartzen duela. Badela instantzia bat, gure kronologiaren mende ez dagoena, edo, gauza bera, gure bertutearen zentzuaren mende ez dagoena. Hortik datoz etorkizuna iragarri edo aurreikusteko saiakera horiek guztiak, hortik sendagile eta kiromantikoengan dugun konfiantza, gaixorik edo arazotan sartuta gaudenean areagotu egiten dena, jainkozkoa otzantzeko —edo deabruzteko— saiakera baino ez dena. Gauza bera esan daiteke edertasun naturala zein artifizialaren aurrean dugun sentimenduaz, finituak bakarrik preziatu ahal baitu infinitua. Graziari dagokionez izan ezik, ulergaitza izango litzateke elkar trukea, baldin eta ez baduzu



benetan azalpen on bat bilatzen ulertzeko zergatik eskatzen dizkizuten hain prezio handiak hiri honetan.

Lanbidez, edo, hobe esan, urteetan zehar egin dudanaren metatze-prozesuaren ondorioz, idazlea naiz; ogibidez, ordea, unibertsitate-irakaslea. Nire lantokian neguko oporrak bost astekoak dira, eta hori da, neurri batean, hona egiten ditudan erromesaldien egutegia azaltzen duena, baina neurri batean soilik. Paradisuak eta oporrek badute antzekotasun bat, biak edukitzeko ordaindu egin behar duzu, eta txanpona zure aurreko bizitza da. Dena dela, nire amodioa hiri honekiko —hiri honekiko urtaro zehatz honetan— aspaldi hasi zen: dirua irabazteko aukera emango zidaten gaitasunak garatu baino askoz lehenago, nire pasioa ordaindu ahal izan baino askoz lehenago.

1966ko egun batean, hogeita bi urte nituen orduan, lagun batek Henri de Régnier idazle frantsesaren hiru eleberri labur utzi zizkidan, Mikhail Kuzmin poeta zoragarriak errusierara itzulita. Garai hartan Régnierrri buruz nekien gutzia zen azken parnasianoetako bat izan zela, poeta ona baina ez apartekoa. Buruz nekizkien Kuzminen poema batzuk, *Alexandriako kantuak* eta *Buztinezko usoak* bildumakoak, eta, gainera, bane-

kien haren ospez esteta handi, ortodoxo elizkoi eta homosexual nabarmen bezala, hurrenkera horretan, uste dut.

Eleberri horiek lortu nituenean, bai idazlea bai itzultzailea hilda zeuden aspaldidanik. Liburuak ere hilzorian zeuden: sakelako liburu merkeak, hogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran argitaratuak, azaleztatze txarrekoak, desegiten ziren eskuetan. Ez dut liburuen izenik gogoratzen, ezta argitaratzailea ere; egiatan, oso oroitzapen lausoa daukat haien nondik norakoez. Iruditzen zait, nola edo hala, haietako baten izena *Dibertimendu probintzialak zela*, baina ez nago ziur. Egiatzatu ahal izango nuke, jakina, baina liburuak utzi zizkidan laguna hil zen orain dela urtebete; eta ez dut egingo.

Liburuak eleberri pikareskoen eta detektibe- eleberrien arteko nahasketa ziren, eta haietako bat behintzat, gogoan *Dibertimendu probintzialak* deitua, Venezian zegoen girotuta neguan. Ilunabarreko argi arriskutsua, topografia ispiluz zamatuta, gertakizun nagusiak ispiluen beste aldean gauzatzen ziren, *palazzo* abandonaturen batean. Hogeiko hamarkadako liburu asko bezala, nahiko laburra zen —berrehun bat orrialde, gehiagorik ez— eta erritmoa azkarrekoa. Gaia betikoa zen: amodioa eta traizioa. Garrantzitsuena: liburu kapitulu laburrez osatuta zegoen, orrialde edo orrialde eta erdi. Haien erritmotik irudi bat iristen zitzaidan, kale heze, hotz eta estuetan zehar baten bat presaka ihesi gaez, gero eta beldurtuago, orain ezkerretara, gero eskuinetara. Nire jaioterri bera duen edonorentzat orrialde horietatik azalarazten zen hiria ezaguterraza zen, eta Petersburgoko luzapen bat bezala senti zitekeen, historia hobea batean, latitudeaz ez hitz egitearren. Hala ere, eleberri horrekin topo egin

nuen une sentiberan gehien inporta zitzaidana izan zen konposizioari buruzko ikasgai erabakigarriena irakatsi zidala: alegia, kontakizun bat benetan on egiten duena ez dela istorioa bera, baizik eta zerk jarraitzen dion zeri. Nahi gabe, Veneziarekin lotu nuen printzipio hori. Irakurlea orain sufritzen ari bada, horra hor arrazoia.



Geroago, egun batean, oraindik bizirik dagoen beste lagun batek *Life* aldizkariko ale hondatu bat ekarri zidan, bertan koloretako argazki ikusgarrian San Marco elurrez estalia agertzen zen. Apur bat geroxeago, une hartan gorteiatzen ari nintzen neska batek oparitu zidan nire urtebetetze egunean akordeoi formako posta-txartel sepia bilduma bat, haren amonak Venezian igarotako eztei-bidaia iraultza aurrekotik ekarria, eta nik arreta handiz aztertu nuen luparekin. Geroago, amak lortu zuen, Jainkoak daki non, tapiz merke zati karratu txiki bat, trapu bat benetan, *Palazzo Ducal*eren irudia zuena, eta nire sofa turkoaren burkoa estaltzeko balio izan zuen, errepublikaren historia horrela laburbilduz nire gorpuzkeraren azpian. Eta hori gutxi balitz, bazegoen ere kobrezko gondola txiki bat, aitak Txinan emandako zerbitzualditik ekarria, gurasoek apain-mahaian zutena, botoi solte, orratz, zigilu eta —gero eta ugariago— pilula eta anpoilaz beteta. Geroago Régnierren eleberriak utzi zizkidan lagunak, orain dela urtebete hil zenak, eraman ninduen Viscontiren, eta Dirk Bogarderen, *Herioa Venezian* filmaren

proiekzio erdi-ofizialera, kopia kontrabandokoa zen eta beraz zuri-beltzean. Tamalez, filmaz ez dut gauza handirik esateko; gainera, eleberria ez zitzaidan inoiz gehiegi gustatu. Halere, hasierako sekuentzia luzeak, Bogarde jauna etzaulkian bapore batean, oztopo baino ez ziren kredituak ahantzarazi zizkidan, eta gaixorik hiltzorian ez egotea deitoratu nuen; gaur egun oraindik ere deitoratze hori sentitzeko gai naiz.

Geroago emakume veneziarra etorri zen. Hiri hau, nolabait, erdigunera sartzen ari zela sentitzen hasi nintzen, hiru dimentsioetako ertzean balantzaka zebilela. Zuri-beltzekoa zen, literaturatik, edo negutik, sortzen den zerbaiti dagokion bezala: aristokratikoa, ilun samarra, hotza, gutxi argizaturik, Vivaldiren eta Cherubiniren akordeak hor nonbait, Bellini / Tiepolo / Tiziano ezalitateko emakume-gorputzekin hodeien lekuan. Eta nire buruari zin egin nion Veneziara etortzea izango litzatekeela egingo nukeen lehen gauza, egunen batean nire inperiotik ateratzea lortuko banu, aingirak noizbait Baltikotik ihes egingo balu, eta *palazzoren* batean beheko solairuan gela bat alokatuko nukeela, ontziek pasatzean altxatutako olatuek nire leihoa ziprztindu egin zezaten, eta bertan elegia pare bat idatzi zigarrokinak harrizko zoru hezean itzali bitartean, eta eztul egin eta edan, eta dirurik gabe gelditzear, trenea hartu baino lehenago, browning txiki bat erosi eta neure burmuina leherrarazi, Venezian berezko heriotza izateko ezgai.

Amets zeharo dekadentea, jakina; baina hogeita zortzi urterekin buru apur bat duen edonor dekadente samarra da. Proiektuan, gainera, ez zegoen gauzatu ahal zen zati txikienik ere. Beraz, hogeita hamabi urterekin nire burua bat-batean beste kontinente baten bihotzean, Amerikaren erdian, ikusi nuenean, unibertsitateko lehen soldata nire ametsaren zatirik onena gauzatzeko erabili nuen eta Detroit-Milan-Detroit joan-etorriko txartela erosi. Hegazkina Ford eta Chrysler lantegietan aritu eta Gabonak etxean pasatzera zihoazen italiarrez beteta zegoen. Hegaldiaren erdian zergarik gabeko denda ireki zutenean, guztiak atzealdera joan ziren azkar, eta une batez amets moduko bat izan nuen: 707 zahar bat Atlantikoaren gainean hegan gurutze bat izango balitz bezala, hegoak zabalik, isatsa beherantz. Geroago trenea eta bidaiaren amaieran hirian ezagutzen nuen lagun bakarra. Amaiera hotz, heze, zuri-beltza zen. Hiria erdigunera etorri zen. «Lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunbea. Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen», hemen ni baino lehenago egon zen egile bat



aipatzeagatik. Hurrengo goiza iritsi zen. Igandea zen,  
eta kanpai guztiak jotzen ari ziren.

Bat egin dut beti Jainkoa, edo behintzat Bere es-  
piritua, denbora dela aldarrikatzen duen ideiarekin.  
Beharbada nire uztakoa zen ideia hori, baina orain  
ez dut gogoratzen. Nolanahi ere, beti pentsatu izan  
dut Jainkoren Arnasa edo Espiritua uren gainean ba-  
zebilen, urak islatu egin behar zuela Espiritua. Hortik  
nire sentimenduak urarekiko, bere tolesdura, zimur,  
uhin eta —iparraldekoa naizenez— bere grisekiko.  
Ura denboraren irudia dela uste dut besterik gabe, eta  
Urtezahar gauetan, modu arras paganoan, uraren on-  
doan egoten saiatzen naiz, ahal dela itsaso edo ozeano  
baten ondoan, bertatik denbora zati berri bat, denbo-  
raz beteriko katilu berri bat nola sortzen den ikusteko.  
Ez naiz bilatzen ari neskato biluzi bat maskor baten  
gainean; bilatzen dudana da hodei bat edo gauerdian  
kostaldearen kontra jo duen olatuaren gandorra. Hori,  
niretzat, uretatik ateratzen den denbora da, eta urak  
berak ertzean uzten duen parpaila bezalako arrastoari  
begiratzen diot ez azti baten jakinduriaz, baizik eta sa-  
murtasunez eta esker onez.

Horixe da nola, eta nire kasuan zergatik, jarri nituen begiak hiri honetan. Ez dago ezer freudianorik fantasia honetan, ezta zehazki kordaturik ere, nahiz eta ezar litekeen loturaren bat, zalantzarik gabe, eboluzioarekin zerikusia duena —argi eta garbi atabismoarekin ez bada— edo autobiografiarekin, olatu batek hondarretan utzitako arrastoaren eta arrasto hori aztertzen duen iktiosauoren ondorengo baten artean, azken hori munstroa berau ere. Veneziako fatxaden parpaila bertikala da denborak / urak inon *terra firman* utzi duen arrastorik onena. Areago, zalantzarik gabe, lotura bat dago —mendekotasun zuzena ez bada— parpaila erakustaldi (hemengo eraikuntzak, alegia) honen natura angeluzuzenaren eta uraren anarkiaren artean, urak formaren ideia bera arbuiatzen baitu. Badirudi espazioak, denboraren aurrean duen gutxiagotasunaz hemen inon baino kontzienteagoak, erantzuten diola denborak ez duen dohain bakarrarekin: edertasunarekin. Eta horregatik hartzen du urak erantzun hori, bihurritu, jipoitu, birrindu egiten du, baina azkenean ia osorik uzten du Adriatikoan.

Begiak autonomia bat eskuratzen du hiri honetan, malkoak duen antzerakoa. Desberdintasun bakarra da ez dela gorputzetik bereizten, baizik eta gorputza erabat menderatzen duela. Denbora gutxiren buruan —hemen daramazun hirugarren edo laugarren egunean— gorputza hasten da bere burua kontsideratzen begiaren eramaile huts bezala, urpekari motaren batek bere periskopioari bezala, orain zabaldu, orain uzkurto. Jakina, helburua edozein dela ere, leherketak beti dira norberaren kalterako: hondoratzen dena zure bihotza da, edo bestela zure gogoa; begia azalera ateratzen da. Hori guztia, jakina, bertako topografiaren ondorioa da, kaleena —estuak, aingirak bezain bihurriak— azkenean platuxa baten antza duen *campo* batera eramaten zaituzten kale horiena, eta han erdigunean eliza bat aurkitzen duzu, lanpernak bezalako santuez estalita, marmokak bezalako kupulak harro erakusten. Berdin dio hemen norantz abiatzen zaren etxetik irtetzean, derrigorrez galduko zara liluratu eta zeharkatzeko deitzen zaituzten kalezulo eta pasabide luze eta kiribildu hauetan amaiera iheskorren bila, des-

kubritzeko amaiera ura baino ez dela askotan, eta ezin dela, beraz, kale itsu ere deitzea. Mapan hiri honek bi arrain erre plater berean dirudi, edo bi otarrain-hagin bata bestearen gainean (Pasternak-ek croissant puztu batekin konparatu zuen); baina ez du ipar, hego, eki edo mendebal alderik; duen norabide bakarra zeharkakoa da. Itsas belar izoztuen antzera inguratzen zaitu, eta zenbat eta azkarrago ibili, zenbat eta gehiago saiatu norabidea aurkitzen, orduan eta gehiago galtzen zara. Elkarguneetako gezi horiak ez dira oso lagungarriak, beraiek ere okertzen baitira. Izan ere, ez dizute laguntzen, itsas belarretan nahasten baizik. Eta helbide bat galdetzeko geldiarazi duzun bertakoaren esku trebeki astinduan, *A destra, a sinistra, dritto, dritto* zezel guztiei ezaxola, begiak arrain bat bereizten du erraz.

Itsas belar izoztuen artean harrapaturiko sare bat metafora hobea izan liteke. Espazioaren eskasia dela eta, jendea elkarren arteko hurbiltasun zelularrean bizi da hemen, eta bizitza txutxu-mutxuen logikari jarraiki garatzen da. Hiri honetan urak norberaren lurraldemugak zedarritzen ditu; kontraleihoen zeregin nagusia ez da hainbeste eguneko argia edo zarata (txiki-txikia dena hemen) eragozte, baizik eta barrutik atera litekeena. Irekita daudenean, kontraleihoek norbaiten arazo zikinetan muturra sartzen duten aingeruak ematen dituzte, eta erlaitzetako estatuen arteko distantziak bezala, giza harremanek urregintzaren itxura hartzen dute edo, oraindik hobe, filigranarena. Hau bezalako lekuetan norbera isilagoa da eta aldi berean diktaduretako poliziak baino informazio hobea du. Zure apartamentuaren sarrera zeharkatu bezain laster, burura daitezkeen susmo, fantasia eta zurrumuru guztien biktima izango zara. Konpainia izan baduzu, hurrengo egunean dendan edo kioskoan begirada zorrotz biblikoa aurkitu ahal duzu, ulertezina, pentsatzekoa litzateke, herrialde katoliko batean. Norbait auzitara

eramaten baduzu, edo alderantziz, kanpoko abokatua hartu behar duzu. Bidaiariak, jakina, ongi pasatzen du mota horretako gauzeekin; bertakoak ez. Margolariak marrazten duena, zaletuak argazkitan ateratzen duena ez da atsegingarria biztanlearentzat. Hala ere, aierua hirigintzaren printzipio gisa (atzera begiratzuz bakarrik azalarazten den nozioa hemen) edozein eskema moderno baino hobea da eta bat dator bertako kanalekin eta, zure giblean berriketa bezala, inoiz gelditzen ez den uraren ereduarekin. Horren haritik, adreilua da, ez dago zalantzarik, marmola baino indartsuagoa, nahiz eta biak barneraezinak izan kanpotarrarentzat. Hala eta guztiz ere, hamazazpi urte hauetan behin edo bitan soilik lortu nuen barrualdeko santutegi veneziar batera sartzea, Régnierrek *Dibertimendu Probintzialak* hartan deskribatzen zuen ispiluaren beste aldeko labirintora. Hain zeharkako bideetatik gertatu zen hura, non ezin baitezaket orain xehetasunik ere gogoratu, une hartan labirinto hartara eraman ninduten bira eta buelta haiek guztiak ezin izango nituzkeelako orain aletu. Norbaitek zerbait esan zion beste norbaiti, han zegoenik ere inork uste ez zuen beste batek dena entzun eta laugarren bati telefonoz kontatu zion bitartean, eta horren ondorioz gonbidatu ninduten enegarrenak bere palazzoan antolatu behar zuen festara.

Enegarrena orain dela oso gutxi zen *palazzo*aren jabea, mundura almirante veneziar pare bat eman zuen familiaren adar batzuen artean hiru mendeetako guda judiziala irabazi ondoren. Beraz, bi txopa argiontzi handi eta ederki landu altxatzen ziren bi solairuko palazzoaren patioan, zeina beteta baitzegoen Errenazimendutik aurrerako garai guztietako itsas tresneria mota anitzez. Enegarrenak berak, leinuko azkenak, hamarkadak eta hamarkadak zain egon eta gero, palazzoan lortu zuen azkenean, familiako beste kide itxuraz ugariren atsekabe handirako. Bera ez zen itsas gizona; antzerkigilea zen, pixka bat, eta margolaria, pixka bat. Oraingo, ordea, gauzarik argiena zen berrogei urteko gizon argal, txiki, molde oneko jaka gurutzatu grisez jantzirik hura nahiko gaixorik zegoela. Azala horixka zen, pergamino itxurakoa, hepatitisaren balu bezala, edo agian ultzera izango zuen. Kontsomea eta barazki egosiak baino ez zituen jan, eta bitartean gonbidatuek irentsi zuten beste kapitulu bereizi bat kontsidera litekeena, ez bada beste liburu oso bat.



Beraz, festa enegarrenaren jabego eskuratu berria ospatzeko zen, eta baita arte veneziarrari buruzko liburuak atera behar zituen argitaletxe berri bat aurkezteko ere. Festa bere onenean zegoen gu —lagun idazle emakumezko bat, haren semea eta hirurok— iritsi ginenean. Jende pila bat zegoen: bertako ospetsuak eta nazioartekoak-edo, politikariak, nobleak, antzerkiaren mundukoak, bizarrak eta gorbatak, bitxikeria maila askoko andreak, txirrindularitzako izar bat, unibertsitate irakasle amerikarrak. Gainera, gazte homosexual, irribarretsu eta alai talde bat zegoen, egun hauetan saihestezina zerbait gutxi gorabehera ikusgarri gertatzen den bakoitzean. Taldeko nagusia erregina bat zen, tarteko adinekoa, urduri eta herratsua, oso errubioa, oso begi urdinekoa, oso mozkortuta: etxezaina, zeinaren jauregi-egunak amaituak zirenez jende guztia gorrotatzen baitzuen. Arrazoi osoz, gaineratuko nuke, haren etorkizuna kontuan hartzen bada.

Izugarrizko zalaparta sortzen zutenez, enegarrenak adeitasunez etxearen gainerakoa erakustea proposatu zigun. Berehala onartu genion proposamena eta igogailu txiki batean sartu eta igo ginen. Kabinatik atera ginenean, hogeigarren mendea, hemeretzigarrena eta hemezortzigarren mendeko zati handi bat atzean utzi genuen, atzean baino, behean, zehatzago: jalkinak bezalakoak zulo estu baten hondoan.

Galeria luze eta urri argiztatu batean geunden, *puttiz* betetako sabai ganbilaren azpian. Nolanahi ere, argi gehiagok ez luke askorik lagunduko, hormak zorutik sabairainoko olio-pintura handiz estalita baitzeuden, marroi ilun kolorekoak, espazio horietarako propio eginak, eta elkarren artean bereziak nekez ikus zitezkeen marmolezko busto eta pilastren birtartez. Irudietan baziren, ikus zitekeen apurragatik,

itsas eta lehorreko guduak, zeremoniak, mitologiako istorioak; kolore argiena ardo beltzekoa zen. Porfido astuneko meategia zen, bertan behera utzia, betiereko ilunabarrean, mineralak zikintzen dituzten olioekin; isiltasuna geologikoa zen benetan. Ezin zen galdetu «Zer da hau?», «Norena da?», ahots hori, kronologikoki askoz gerokoagoa eta, jakina, hutsala zen organismo batetik zetorrena, guztiz inkongruentea izango zatekeelako han. Edo sentsazioa itsaspeko bidaia batena bezalakoa izan zitekeen, gu arrain-sarda baten gisakoa, altxorrez betetako galeoi hondoratu batetik igarotzen, baina ez genuen ahorik irekitzen, urik ez irensteko.

Galeriaren beste muturrean gure anfitrioia eskuinera jo zuen bat-batean, eta haren atzetik joan ginen hamazazpigarren mendeko jaun baten liburutegiaren eta estudioaren arteko nahasketa zirudien gela bateraino. Zurezko armairu handietan, alanbrezko saretan gurutzatuaren atzean zeuden liburuen arabera, jaunaren mendea hamaseigarrena ere izan zitekeen. Baziren han hirurogei bat liburu lodi, zuriak, pergaminozko azalekin, Esoporengandik Zenonengana; jaun batentzat nahikoa, gehiagorekin jauna pentsalari bihurtu zitekeen, ondorio zoritzarrekoak ekarriko zituenaren haren portaeran nola ondarean. Horretaz landa, gela nahiko hutsik zegoen. Bertako argia ez zen galeriakoa baino askoz hobea; idazmahai bat eta lur-globo kolorgabe handi bat begiztatu ahal izan nituen. Orduan gure anfitrioia helduleku bat biratu eta bere silueta ikusi nuen gela ilara batera ematen zuen ate zabalduan kokaturik. Ilara horri begiratu eta dardara egin nuen: infinitu zital eta likatsua zirudien. Arnasa sakon hartu eta bertaratu nintzen.

Gela hutsen segida luzea zen. Arrazoiari kasu eginenez, banekien ezin zela paraleloan zihoan galeria

baino luzeagoa izan. Baina hala zen. Ohiko perspektiban baino gehiago, sentitu nuen optikaren legeak etenda zeuzkan kiribil horizontal batean ibiltzen ari nintzela. Gela bakoitzak urrats bat gehiago irudikatzen zuen zure desagertze bidean, hurrengo gradu bat zure inexistentziarantz. Horrek hiru gauzekin zuen zerikusia: errezeria, ispiluak eta hautsa. Nahiz eta batzuetan igar zitekeen zertarako zen gela bakoitza — jangela, egongela, haurren gela beharbada— gehienak oso antzekoak ziren ageriko funtzio faltari zegokionez. Neurria dela eta, berdintsuak ziren gutxi gorabehera, edo nolnani ere, ez zirudien desberdintasun handirik zegoenik haien artean. Eta baziren guzti-guztietako leihoetan errezelak zintzilik eta bizpahiru ispiluk apaintzen zituzten hormak.

Edozein izanda ere errezen jatorrizko kolorea eta marrazkia, orain laru kolorekoak eta oso hauskorak ziren. Hatz ukitu batek, edo haize-laster batek, suntsipena baino ez liekete ekarriko, parketean barreiatutako oihal zatiek iradokitzen zuten bezala. Azala galtzen ari ziren gortina haiek, eta tolestura batzuek zati handi soilak erakusten zituzten, haririk gabekoak, oihalak, zirkulu osoa bete ondoren, ehundua izan baino lehenagoko egoerara itzultzen ari zela sentituko balu bezala. Gure arnasa ere agian intimitate handiegia zen; hala ere, errezelek, historiak bezala, behar ez duten aire garbia baino hobea zen. Ez zen dekadentzia ezta deskonposizioa ere; denboraren disoluzioa zen, koloreak eta ehundurak garrantzirik ez zuteneko egoera bat, zeinetan gertatzen ahal zitzaiena ikasi ostean berriro elkartu eta itzuliko ziren, hemen edo beste nonbait, beste itxura batekin. «Barkatu», bazirudien esan nahi zutela, «hurrengoan iraunkorragoak izango gara».

Bestalde, ispilu horiek zeuden, bizpahiru gela bakoitzean, neurri desberdinekoak, baina gehienak angeluzuzenak. Ispiluek marko fin urreztatuak zituzten, lore girlanda ederki landuekin edo eszena idilikoe-kin; markoek arreta erakartzen zuten ispilu azalek baino askoz gehiago, amalgama beti egoera txarrean baitzegoen. Neurri batean, markoak edukia baino koherenteagoak ziren, ahaleginak egiten bazituzten eduki hori hormatik isur ez zedin. Mendeetan zehar edozer gauza islatzeko ohitura galdu ondoren, pareko horma izan ezik, ispiluek, gutiziaz nahiz ezintasunez, ez zuten gogo handirik norberaren aurpegia itzultze-ko, eta saiatzen zirenean, osatugabe itzultzen zituzten norberaren hazpegiak. Régnier ulertzen hasten ari nintzela pentsatu nuen. Gelatik gelara, ilaran aurrera egin ahala, gero eta iluntasun gehiago itzultzen zizkidaten marko haietan gero eta gutxiago ikusten nuen nire burua. Mailaz mailako lapurreta, nire buruari galdetu nion: nola bukatuko da hau guzti hau? Eta hamargarren edo hamaikagarren gelan bukatu zen. Hurrengo gelara zeraman atearen ondoan geratu nintzen, metro bat luze eta metro hogeï zabaleko angeluzuzen handi urreztatu bati begira, eta nire buruaren orde, belea baino beltzago zen ezereza ikusi nuen. Sakona eta tentagarria, bazirudien berariazko ikuspegia zuela, beste gela segida bat agian. Une batez, zorabioak hartu ninduen; baina eleberrigile ez izanik, aukera baztertu eta handik atera nintzen.

Ordura artekoa mamu-antzekoa izana zen baina zentzuzkoa nolabait; bat-batean dena zentzutik kanpo bilakatu zen. Anfritrioia eta nire lagunak nonbait gelditu ziren atzean; bakarrik nengoen. Hauts handia zegoen nonahi, ikusten zen guztiaren kolore eta formak hautsaren grisez motelduta zeuden. Mahaiak marmolezko

inkrustazioekin, portzelanazko iruditxoak, sofak, aulkiak, parketa bera. Hautsez beterik zegoen dena, eta batzuetan, iruditxo eta bustoetan adibidez, eragina onuragarria zen, ezaugarri batzuk, tolesturak edo talde baten bizitasuna nabarmenago agertzen baitziren. Baina kasu gehienetan hautsaren geruza lodia eta sendoa zen, are gehiago, behin betiko itxura zuen, hauts berririk gehitu ezin balitzaio bezala. Gainazal orok hautsa desiratzen du, hautsa denboraren haragia baita, poeta batek esan bezala, haragi eta odol benetakoa; baina hemen desirak amaiturik zirudien. Orain hautsa gauzetan sartuko da barruraino, pentsatu nuen, gauzekin bat egin arte, eta azkenean hautsak gauzak ordezkaturiko ditu. Materialen arabera, jakina; haietako batzuk oso iraunkorrak dira. Beharbada ez dira desintegratuko ere; grisago bilakatuko dira besterik gabe, denborak ez baitu inolako eragozpenik jarriko gauzen formak onartzeko, gela hutsen ilara horretan, materiari aurrea hartuz, dagoeneko gertatu den bezala.

Azken gela nagusiaren logela zen. Lau zutabe baina ohe-zerurik ez zuen ohatze erraldoi bat jaun eta jabe zen leku hartan: almirantearen mendekua itsasontziko etzaleku estuaren kontra, edo beharbada itsasoari berari eginiko omenaldia. Azken hori seguruenen zen, ohe gainera jaitsi eta baldakino edo ohe-zeruarena egiten zuen *putti* iztukuzko hodei ikaragarria zela eta. Izan ere, *putti* baino gehiago eskulturak ziren. Kerubinen aurpegiak izugarri groteskoak ziren: guztiek keinu ustel eta lizunak zituzten oheari begira goitik, adi-adi. Gogoratu nintzen behean zegoen gazte irribarretsu talde hartaz; eta orduan konturatu nintzen telebista eramangarri bat zegoela bestalde erabat hutsik zegoen gelako bazter batean. Etxezaina irudikatu nuen haren gustukoenarekin dibertitzen gela hone-

tan: haragi biluzizko irla bihurria lihozko itsaso baten erdian, hautsez estalitako maisulan igeltsuzkoaren begirada arakatzaillearen azpian. Bitxia badirudi ere, ez nuen inolako higuinik sentitu. Aitzitik, sentitu nuen denboraren ikuspuntutik dibertimendu hori egokia izan zitekeela hemen, ez baitzuen ezer sortzen. Azken buruan, hiru mendeetan zehar, ezereza izan zen hemen nagusia. Ez zen hona gerrarik, iraultzarik, aurkikuntza handirik, juniorik, izurriterik inoiz sartu, lege arazo bat zela eta. Kausalitatea bertan behera utzita zegoen, haren giza bitartekariak zaintzaile gisa soilik hurbiltzen baitziren ilararen perspektiba honetara, hainbat urterik behin, hori egitera ere iritsi baziren. Beraz, arrain-sarda txiki bihurria lihozko itsasoan primeran zetorren lekuarekin, hortik ezin baitzen berez ezer jaio. Kasurik onenean ere, etxezainaren irla —edo sumendia esan beharko nuke?— *putti* haien begiradan existitzen zen soilik. Ez ispiluen mapan. Ezta ni ere.



Behin gertatu zitzaidan hori guztia, Venezian tankerako leku asko dagoela esan didaten arren. Baina behin nahikoa da, batez ere neguan, bertako behe-lainoak, *nebbia* entzutetsuak, edozein jauregiko barru santutegiak baino denboragabeago bilakatzen duenean leku hau, isla guztiekin batera suntsitzean forma duen oro ere: eraikinak, jendea, zutabediak, zubiak, estatuak. Itsasontzi zerbitzuak bertan behera gelditzen dira, hegazkinak ez dira iristen, ezta aireratzen ere, astetan, dendak itxita daude, eta gutunek sarreran metatzeari uzten diote. Badirudi orduan esku anker batek gelen ilara hori alderantziz jarri, barrukoz kanpora, eta hiri osoa forruan bildu izan duela. Ezkerrak, eskuinak, goikoak eta behekoak beren lekuak trukutzen dituzte, eta ezin duzu biderik aurkitu, ez bazara bertakoa edo ez baduzu gidatzen zaituenik. Behe-lainoa itxi-itxia da, itsugarria eta mugiezina da. Azken alderdi hori, baina, abantaila izan daiteke zuretzat, mandatu labur bat egitera ateratzen bazara, tabakoa erostera, adibidez, zeren itzulerako bidea aurki baitezakezu zure gorputzak behe-lainoan zulatu duen tunelean barrena; eta



gerta daiteke tunela ordu erdiz irekita egotea. Irakurtzeko garaia da, elektrizitatea egun osoan xahutzekoa, pentsamendu autokritikoekin edo kafearekin ez pasatzekoa, BBCko albiste zerbitzua entzutekoa, ohera goiz joatekoa. Laburbilduz, nor bere burua ahanzteko garaia, ikusgai izateari utzi dion hiri batek eragindakoa. Konturatu gabe, hiriaren eredia hartzen duzu, batez ere, berak bezala, ez baduzu konpainiarik. Hemen jai ez izana nolabait konpentsatzeko, harrotu zaitezke apur bat behintzat haren ikusezintasuna partekatzeaz.

Oro har, ordea, hiri honetan berdin interesatu zaizkit beti adreilu arruntaren atzean dauden kontuak zein marmol apartekoaren atzean daudenak. Ez dago ezer populistarik zaletasun horretan, are gutxiago antiaristokratikorik; ezta eleberrigilearen ezer ere ez. Nire bizitzaren zatirik handienez bizi edo lan egin dudan etxe motaren oihartzuna baino ez da. Hemen jaio ez izanaren okerrari beste oker larriago bat gaineratu diot, normalean *piano nobile* batera eramaten ez zaituen lanbide bat aukeratzean. Bestaldetik, agian esnobismo perbertso apur bat dago adreiluarekiko zaletasun horretan hemen, haren gorri biziarekiko, iztuku altxatuko zarakarrek agerian utzitako gihar handituak duen kolorearen antzerakoa. Arrautzek bezala, sarritan irudikatu izan dut haiei begira —batez ere gosaria prestatzen ari naizen bitartean— elikagaiak poteetan modu organikoan ekoizteko ideia eta arrakasta izan dituen zibilizazio ezezagun bat, adreiluek eta adreilu-hormagintzak ere beste haragi kategoría bat ekartzen dute gogora nolabait, ez gordina noski, baina nahikoa gorria oraindik, eta zelula txiki berdinez osatua. Espeziearen

beste autoerretratu bat oraindik, oinarrizko mailakoa, izan hura horma bat zein tximinia bat. Azken finean, Ahalguztidunak Berak bezala, gure irudiaren arabera egiten dugu dena, eredu fidagarriagorik ezean; egiten ditugun gauzakeriek gehiago esaten dute gutaz gure aitoren bano.

Dena dela, oso gutxitan zeharkatu ditut etxe arrunten sarrerak hiri honetan. Tribuek ez dute arrotzik atsegin, eta veneziarrak oso tribalak dira, uhartetarrak izateaz gain. Nire italiara erabateko zeroaren inguruan setati kulunkatzen da; ez dio inoiz oztopo izateari uzten. Hobetzen nuen hizkuntza hilabete edo bertan pasa ondoren, baina orduan beste urtebetez erabiltzeko aukeratik aterako ninduen hegazkina hartu behar izaten nuen. Beraz, inguruan nuen konpainia ingelesez egiten zuten bertakoek eta iparramerikar atzerriratuek osatzen zuten, bien etxeek oparotasun bertsio —maila ez esatearren— ezaguna partekatzen zutelarik. Errusieraz hitz egiten zutenei dagokienez, bertako unibertsitateko pertsonaiak, nire jaioterriaz zituzten sentimenduek eta ideia politikoek goragalearen mugetaraino eramaten ninduten. Emaizta antzerakoa izan zen bertako bizpahiru idazle eta akademikorekin: litografia abstraktu gehiegi hormetan, apalategi txukunegieta zirtzileria afrikarrak, emazte isilak, alaba zurbilak, beti hilzorian zeuden elkarrizketa nagiak egungo gertaerez, beste norbaiten ospeaz, psikoterapiaz, surrealismoaz,

eta bukatzeko nire hotelera bueltatzeko lasterbide baten deskribapena. Emaizta garbien tautologiak bilaketan desberdintasuna zapuztu du, norbaitek formula bat behar badu. Nik neure arratsaldeak alferrik galdu nahi nituen bertako abokatu edo botikari baten bulego hutsean, eta idazkariari begira egon ondoko tabernatik kafeak ekarri bitartean, eta nagi hitz egin txalupa motordunen prezioez edo Dioklezianoren nortasunaren ezaugarri positiboez, hemen ia guztiek nahiko heziketa ona baitute, bai eta grina bizia ere gauza aerodinamikoetarako. Kostatuko litzaidake aulkitik altxatzea, bezero gutxi agertuko lirateke; azkenean, bulegoa itxi eta gero, Gritti-ra edo Danieli-ra abiatu, bertan nik ordainduko nituzke edariak; zorionekoa izango banintz, idazkaria gurekin elkartuko litzateke. Besaulki saketan hondoratuko ginen, iruzkin maltzurak egingo genituzke alemaniarren batailoi berriez edo nonahi dauden japoniarrez, azken horiek kameran atzean, agure berriak balira bezala, zelatatuz, Susanaren antza duen hiri honetako marmolezko izter margul biluzi ilunabarrak tindatutako ur hotzetan sartuak. Geroago, lagunak etxean afaltzera gonbidatuko ninduke, eta haren emazte haurdunak, pasta lurruntsuaren gainetik, errieta egingo lidake oraindik ezkongabe egoteagatik. Film neorrealista gehiegi, nik uste, Svevo gehiegi. Fantasia mota hori egia bihurtzeko behar diren baldintzak eta *piano nobile* batean bizitzeko behar direnak berberak dira. Ez ditut, eta ez naiz hemen denbora nahikorik gelditu amets zoro horri uko egiteko guztiz. Beste bizitza bat izateko, lehendabizikoa jaso eta biltzeko gai izan behar du norberak, txukun jaso eta bildu, gainera. Inork ez du lortzen horrelako gauzak modu sinesgarrian egitea, nahiz eta, batzuetan, ezkontideen ihesak edo sistema politikoek zerbitzu onak ematen

dituzten. Txakur ezagunen ametsetan, zahardadea eta hondamena heltzean, badira beste etxeak, eskailera ezezagunak, usain ezohikoak, altzari eta topografia arrotzak, ez nagusi berriak. Eta gakoa haiek ez moles-tatzean datza.



Beraz, ez nuen inoiz lorik, are gutxiago bekatu-rik, egin familiako ohe burdin forjatuzko batean, lihozko izara aratz eta kurruskarien artean, litsez beteriko ohazal brodatu baten azpian, hodeiak bezalako burkoekin, eta perlez txertatuko gurutze batekin oheburu gainean. Ez nuen inoiz begirada arretagabea jarri Madonnaren oleografia batean, ezta aita / anaia / osaba / semearen argazki margul batean ere, hain do-  
tore *bersagliereren* kasko luma beltzez apainduarekin, ez leihoetako errezel chintz oihalezkoetan, ez portze-  
lanazko edo maiolikazko loreontzian egur ilunezko komodaren gainean, ez tiraderetan, bertako parpai-  
laz, maindirez, eskuoihalez, burko azalez eta barruko arropaz beterik, guztiak beso gazte, sendo, brontze koloreko, ia beltzaranak garbitu eta lisatuak sukaldeko mahaian, tirantetxo batek sorbalda batetik irristatu eta izerdi tanta zilarrezkoek bekokian distira egiten duten bitartean. (Zilarra dela eta, ziur aski izara meta baten azpian ezkutaturik egongo litzateke tiradera horietako batean.) Hori guztia, jakina, film batekoa da, non ni ez nintzen ez izar bat, ezta estra bat ere, berriro egingo ez



duten film batekoa, edo, egingo balute, atrezzo guztiz bestelakoa izango litzateke. Nire buruan *Nozze di Seppia* du izenburua, eta ez du inolako argumenturik, salbu eta eszena bat: ni Fondamente Nuove-n zehar oinez, munduko akuarelarik onena ezkerrean eta eskuinean adreilu gorritzko infinitu bat. Oihalezko kapela eta artilekizko jaka iluna eramango nituzke, eta alkandora zuri bat, lepo irekiarekin, esku sendo eta beltzaran berak garbitu eta lisatua. Arsenale-ra gerturatzean, eskuinaldera joko nuke, hamabi zubi zeharkatu, via Garibaldi hartu Gardinietaraino, han, duela sei urte alkandora hau garbitu eta lisatu zuen emakumea eserita egongo litzateke Caffè Paradisoko aulki burdinazko batean. Aurrean baso bat *chinotto* eta *panino* bat, Properzioren *Monobiblos* edo Puxkinen *Kapitainaren alaba* ale higatu txiki bat izango lituzke; tafetazko soineko bat eramango luke, belaunetaraino, Erroman erosi zuena Ischiara egin genuen bidaiaren bezperan. Begiak altxatuko lituzke, ziape eta ezti kolorekoak, eta artilekizko jaka astuna daraman irudiari erreparatuz esango luke: «Hori bai gilborra, hori!» Neguko argiak bakarrik salba lezake film hau porrotetik.

Duela ez dakit zenbat, gerra garaiko exekuzio baten argazkia ikusi nuen nonbait. Hiru gizon zurbil eta argal, altuera ertaineko eta hazpegi nabarmenik gabekoak (kamerak albotik hartu baitzituen) zutik daude zanga ireki berri baten ertzean. Iparraldekoak direla ematen du, izan ere, uste dut argazkia Lituanian egin zutela. Gizon bakoitzaren atzean badago soldadu alemaniar bat pistola eskuan. Urrutian soldadu talde bat ikus daiteke: begiraleak. Neguaren hasiera dirudi edo udazkenaren bukaera, soldaduek negu berokiak jantzita dituztelako. Kondenatuak, hirurak, berdin jantzita daude. Oihalezko kapelak eramaten dituzte, eta jaka beltz astunak lepo gabeko elastiko zurien gainean: biktimen uniformeak. Eta gainera, hotzak daude. Hori dela eta, buruak sorbalda artean sartzen dituzte. Segundo bat eta hilko dira: argazkilariak botoia sakatu zuen soldaduek katuak sakatu baino une bat lehenago. Hiru mutil herrikoek buruak sorbalda artean sartu zituzten eta begiak txitxildu, umeez mina aurreikustean egiten duten moduan. Oinazearen zain zeuden, agian oinaze izugarrien zain; tiro baten hots gorgarriaren zain

zeuden, hain gertu belarrietatik! Eta begiak txitxildu zituzten. Giza erantzunen errepertorioa mugatua baita! Zetorkiena heriotza zen, ez mina; baina ezin zituzten beren gorputzek biak bereizi.

1977eko azaroan, Disidentziaren Biennale-k gonbidatuta, Londra hotolean nengoen. Arratsalde batean Susan Sontag-ek deitu zidan telefonoz; bera ere gonbidapen berarekin zegoen, baina Gritti hotolean. «Joseph», esan zuen, «gaur gauean baduzu egitekorik?» «Ezer ez», erantzun nion. «Zergatik?» «Zera, Olga Rudge-rekin topo egin dut gaur piazzan. Ezagutzen al duzu?» «Ez. Pound-en emazteaz ari zara?» «Bai,» esan zuen Susanek, «eta gaur gauean afaltzera gonbidatu nau. Ez dut bakarrik joan nahi, beldur naiz. Etorriko zara nirekin, beste planik ez baduzu?» Ez nuen planik eta baietz esan nion, noski, joango nintzela, haren beldurra ondoegi ulertuta. Nirea, pentsatu nuen, are handiagoa izan liteke. Hasteko, nire lanbidean Ezra Pound oso kontu garrantzitsua da, ia-ia industria bat. Grafomano estatubatuar askok aurkitu dute Ezra Pounden baitan maisua eta martiria aldi berean. Gaztetan hainbat zati itzuli nizkion errusierara. Zaborra baino ez ziren itzulpen haiek, baina argitaratzear egon ziren literatur aldizkari sendo batean, batzordean zegoen kriptonazi bati esker (gaur egun, jakina, gizona

nazionalista sutsua da). Jatorrizkoa gustatu zitzaidan gazte freskotasunagatik, bertsolerro urduriengatik, gai eta estilo anitzengatik, niretzat orduan eskuraezinak ziren kultur erreferentzia ugariengatik. Era berean gustatu zitzaidan bere «egin dena berri» lelo hura, gustatu zitzaidan, egia esan, harik eta konturatu nintzen arte dena berri egiteko benetako arrazoia zen «dena» hori nahikoa zaharra zela; azken finean, karrozeria lantegi batean geundela, besterik ez. Saint Elizabeth ospitale psikiatrikoan izan zuen egoera larriari dago-kionez, errusiar baten ikuspuntutik ez dago zertan gehiegi txunditu, eta, edozein kasutan, gerra garaiko bere irratimintzaldiak direla-eta zenbait lekutan irabaz zitekeen bederatzi gramoko berun baino hobea zen. *The Cantos* haiek, gainera, hotz eta motz utzi ninduten; akats nagusia akats zaharra zen: edertasuna bilatzea. Italian hainbeste denbora bizi izan zen pertsona batez ari garela, harrigarria da ikustea nola ez zen konturatu edertasuna ezin dela jomuga izan, eta beti dela beste jarduera batzuen azpiproduktua, askotan oso jarduera arruntena gainera. Nire ustez, zuzena izango litzateke haren poemak eta haren mintzaldiak elkarrekin liburu bakar batean argitaratzea, hitzaurre kritikorik gabe, eta ikusi zer gertatzen den. Inork baino hobe jakin behar-ko luke poeta batek denborak ez dakiela Rapalloren eta Lituaniaren artean distantzia bat dagoenik. Uste dut, halaber, ausartagoa dela norberak bizitza hondatu duela aitortzea jenio zapalduaren paperean tematzea baino, besoa altxaturik agur faxista eginez Italiara itzultzean, keinuaren esanahiari buruzko zurrizko ariketetan galtzeko berehala, elkarrizketa uzkurak, eta kapa eta makila erabiltzea jakintsuaren itxura lantzeko, emaitza garbi batekin: Haile Selassie-ren antza

izatea. Handia zen oraindik nire lagun batzuentzat, eta orain nik haren maitale zaharra ikusi behar nuen.

Emandako helbidea Salute-ko *sestiere*-n zegoen, nik dakidalarik, atzerritarren ehuneko handienak, anglosaxoiak batez ere, biltzen dituen auzoan. Hainbat bira eta buelta eman ondoren, lekua aurkitu genuen, ez urrunegi, egia esan, Régnierrek mendearen bigarren hamarkadan izan zuen etxetik. Txirrina jo genuen, eta, begi borobil eta distiratsuko emakume txikia atarian agertu eta gero, ikusi nuen lehen gauza izan zen poetaren bustoa, Gaudier-Brzeska-k egina, egongelaren zoruan. Asperraldiaren ukabilak bat-batean baina segurua jo zuen.

Tea atera ziguten, baina kizarak ezpaineratu bezain laster, gure anfitrioiak —ile griseko andre ñimiño eta txukunak, oraindik urte asko aurrean bizitzeko— hatz fina altxatu eta buruko disko ikusezin bateko ildoan irristarazi zuen, eta haren ezpain zimurtuetatik aria bat etorri zitzaigun, 1945az geroztik gutxienez denen ahotan ibili den partiturrekin. Ezra ez zela faxista bat; beldur zirela estatubatuarrek (kontu bitxia zen estatubatuar baten ahotik hori entzutea) ez ote zuten aulki elektrikoan jarriko; ez zekiela ezer gertatzen ari zenaz; ez zegoela alemanik Rapallon; hilean bitan bakarrik joaten zela Rapallotik Erromara, irratikoa egiteko; estatubatuarrek, berriro, oker zeudela pentsatzean Ezrak nahi zuela... Une batetik aurrera utzi nion esaten zuena erregistratzeari —oso gauza erraza niretzat, ingelesa ez baita nire ama-hizkuntza— eta besterik gabe baietz egiten nuen buruarekin etenaldietan edo bakarriketa baten antza zuen «Capito?» haiekin markatzen zuen bakoitzean. Disko bat, pentsatu nuen; bere nagusiaren ahotsa. Izan adeitsu eta ez moztu andrea; zaborra da, baina berak sine-

tsi egiten du. Uste dut nire baitan badela zerbait giza adierazpenaren alde fisikoa errespetatzera eramaten nauena, edukia edozein delarik ere; norbaiten ezpainen mugimendu bera funtsezkoagoa da ezpain horiek mugiarazten dituen baina. Erosoago kokatu nuen gorputza besaulkian, eta gailletetan kontzentratzen saiatu nintzen, ez baitzegoen afaririk.

Susanen ahotsaren doinuak esnatu eta atera ninduen ameskerietatik, diskoa geldituta zegoen azkenik. Bazen zerbait arraroa Susanen hizketa moduan eta belarriak zorroztu nituen: «Baina ziur asko, Olga, ez duzu pentsatuko estatubatuarrak irratikoagatik bakarrik haserretu zirela Ezrarekin? Irratikoagatik izan balitz, orduan Ezra beste Tokyo Rose bat baino ez zen izango». Inoiz entzundako ihardespenik handienetakoa izan zen hori. Olgari begiratu nion. Esan behar da kolpea hartu zuela zintzoki. Edo, hobe, profesional baten modura. Edo ez zuen Susanez esandakoa ondo ulertu, zalantza egiten dudan arren. «Zer izan zen orduan?» galdetu zuen. «Ezraren antisemitismoa izan zen», erantzun zuen Susanez, eta berriro ikusi nuen andre zaharraren hatza, zafirozko orratza, ildoan irristarazten. Diskoaren beste alde honetan honakoa zegoen: «Ulertu egin behar da Ezra ez zela antisemita; azken finean bere izena Ezra zela; bere lagun batzuk, almirante veneziar bat barne, juduak zirela; eta...». Doi-nua antzerakoa zen eta aurrekoa bezain luzea —hiru ordu laurden ingurukoa—; baina oraingoan alde egin behar genuen. Andre zaharrari harreragatik eskerrak eman ondoren, agur esan genion. Nire aldetik, ez nuen sentitu alargun baten etxetik irteteen edo, gauza bera dena, edozein pertsona leku huts batean bakarrik uztean sentitzen den tristezia. Andre zaharra sasoi onean zegoen, egoera ekonomiko nahiko lasaian; eta orenen

gainetik, haren sineste sendoen erosotasuna zuen eta, hauteman nuen, erosotasun hori defendatzeko behar den guztia egingo luke. Uste dut ez nuela inoiz faxista bat ezagutu, ez gazte ez zahar, baina Alderdi Komunista zaharreko kide askorekin harremanak izan nituen, eta horregatik, Olga Rudgeren etxeko te hark, Ezraren busto harekin zoruan, oroitzapen bat baino gehiago piztu zizkidan. Etxetik atera eta ezkerrera jo genuen, bi minutu geroago *Fondamenta degli Incurabili*-ra heldu ginen.





Ai, hizkuntzaren ahalmen iradokitzaile zaharra!  
Ai, hitzek duten trebetasun mitiko hori errealitateak eman dezakeena baino gehiago adierazteko! Ai, lanbidearen trikimailu eta amarruak. Jakina, *Fondamenta degli Incurabili*, *Sendaezinen Kaia*, izena izurritetik dator, hiri honetako biztanleriaren erdia mendez mendeko, erroldarako lan egiten duenaren erregulartasunarekin, garbitzen zuten epidemietatik. Izenak kasu etsienak ekartzen ditu gogora, alderrai baino gehiago harlauzetan etzanda zeudenak, azken hatsa ematen hitzez hitz, hil-jantziekin jadanik, gurdi baten zain edo, hobe, ontzi baten zain urrutira eramateko. Zuziak, kea, gasazko maskarak arnasketa babesteko, soineko urratuak eta fraideen abituak, kapa beltzak hegan, argizariak. Apurka-apurka hileta segizioa inauteri bilakatzen da, edo benetako ibilaldi, non maskara erabili behar den nahitaez, hiri honetan guztiak elkarren ezagunak baitira. Horri gehitu behar dizkiogu tuberkulosiak jotako poeta eta musikariak; horri gehitu behar dizkiogu sineste sendo ergelak dituzten gizonak edo leku honekin etsituki maiteminduta dauden estetak eta kaiak daukan

izena irabaz dezake, errealitatea hizkuntzaren mailara hel daiteke. Era berean, gehitu behar da izurritearen eta literaturaren arteko harremana —poesiarena bereziki, eta italiar poesiarena, batez ere—, nahiko estua izan dena hasieratik. Danteren azpimundurako jaitsiera hori zorretan baitago Homerorekin eta Virgiliorekin —bigarren mailako pasarte batzuk baino ez, azken finean, *Iliada*-n eta *Eneida*-n— baina baita ere Bizantzion Erdi Aroan kolerari buruz idatzi zen literaturarekin eta bere ohiko eskemarekin: ehorzketa goiztiarra eta, ondoren, arimaren erromesaldia. Azpimunduko langile saiatuegiak kolera jotako hiriaren gainean mugitzen dira gogotsu, gorputz erabat deshidratatu baten kontra oldartu dira orduan, ezpainak sudurzuloetan jarri eta bizi espiritua xurgatu diote berehala, horrela hilda dagoela aldarrikatu ahal dute, lurperatzeko prest dagoela. Behin lur azpian, hildakoa gela eta areto amaigabean barrena ibiliko da erreguka, hildakoen erresumara bidegabe bidali dutela, erreparazioaren bila. Erreparazioa lortuta —Hipokrates buru duen auzitegi baten aurrean gehienetan— beheko gela eta areto horietan topatu ditueni buruzko istorioz beterik itzuliko da: erregeak, erreginak, heroiak, bere garaiko hildako ospetsuak eta doilorrak, damutuak, etsituak, harroak. Ezaguna zaizue? Horra hor lanbidearen ahalmen iradokitzailea. Ez dago jakiterik zerk sortzen duen zer: esperientziak hizkuntza, edo hizkuntzak esperientzia. Biak ala biak nahikoa sortzeko gai dira. Larriki gaixorik zaudenean, mota guztietako ondorioak eta gertaerak irudikatzen dituzu, inoiz jazoko ez direla dakizunak ere. Pentsamendu metaforikoa akaso? Erantzuna, nire ustez, baietz da. Salbu eta gaixorik zaudenean, sendatzea eta gaixotasunaren bukaera espero duzula, baita esperantza guztien aurka ere. Gaixotasun baten bu-

kaera, horrela, haren metaforen bukaera da. Metafora batek —edo, orokorrigo mintzatzearen, hizkuntzak berak— bukaera irekiak ohi ditu, jarraipena desiratzen du: hil ondoko bizitza bat, nahi baduzu. Bestela esanda, eta ez dut hitz-jokorik egin nahi, metafora sendaezina da. Horri guztiari gehitu, azkenean, zu zeu, lanbide horren eramailea, edo birus honena —birus pare baten eramailea, hobe, eta hirugarren bat hartzeko prest gainera— gau haizetsu batean herrestan *Fundamentan* zehar, kaiaren izenak diagnostikoa aldarrikatzen du, zure gaixotasunaren izaerari erreparatu gabe.



Neguko argia hiri honetan! Argi horrek begiaren bereizmena hobetzeko gaitasun aparta dauka, zehaztasun mikroskopikora iritsi arte, begi-niniak, grisa edo ziape-eta-ezti koloretakoa denean batez ere, Hasselblad leiar oro umiliatu eta zure geroko oroitzapenak *National Geographic*-eko garbitasunez hobetzen ditu. Zerua urdin bizia da; eguzkiak ihes egiten dio San Giorgio-ren oinetan duen bikoitz urrezkoari eta sigi-saga segitzen du *lagunaren* olatu kulunkarietako ezkata ugarien gainetik; zure atzean, Palazzo Ducale-ko arkupeetan, morroi sendo talde batek, larruzko berokiak jantzirik, *Eine kleine Nachtmusik* jotzen du azkar, zuretzako soilik, zu, aulki zuri batean patxadan eserita, *campo* zabal bateko xake taulan usoek egiten dituzten mugimendu zoroiei begira edo. Nabaria da zure kikararen hondoko *espresso* dela kilometrotako itzulinguruan dagoen puntu beltz bakarra. Horrelakoak dira eguerdiak hemen. Goizean argi honek leihoko kristalei bularra eman die, eta zure begia maskor baten antzera bortxaz ireki ondoren, ihes egin dizu lasterka bere izpi luzeekin jotzeko —parke edo lorategi bateko hesi burdinazkoa jotzen duen

mutiko jostalariaren antzera— arkupeak, zutabediak, adreilu gorriko tximiniak, santuak, lehoiak. «Margotu! Margotu!» oihu egiten dizu argiak, oker pentsatuz zu Canaletto bat zarela, edo Carpaccio edo Guardi bat, edo ez duelako uste zure erretina gai izango denik ikusarazi dizuna atxikitzeke, ezta zure garunak horixe bera xurgatu ahal duenik ere. Agian azken horrek aurrekoa azaltzen du. Agian sinonimoak dira. Agian artea oroi-menaren mugen aurka organismoak duen erreakzioa baino ez da. Edonola ere, aginduak bete eta kamera hartzen duzu, garuneko zelulak zein begi-ninia osatzeke. Hiri hau inoiz dirurik gabe gelditzen bada, Kodak etxera joan daiteke zuzenean laguntza eskatzera, edo bestela haren produktuen gainean zerga basatiak ezarri. Era berean, leku hau existitu artean, neguko argiak leku honen gainean distira egin artean, Kodak akzioak inbertsio onenak dira.

Hiri guztiak dira zoragarriak ilunabarrean, baina batzuk beste batzuk baino gehiago. Erliebeak malguago bilakatzen dira, zutabeak biribilago, kapitelak kiribilduago, erlaintzak sendoago, orratzak zorrotzago, horma hobiak sakonago, apostoluak dotoreago, aingeruak airekoago. Kaleetan ilundu du, baina egun-argia da oraindik *Fondamenta* guztietan eta ispilu likido erraldoi horretan, non txalupa motordun, vaporetto, gondola, batela eta gabarrek «zapata zaharren antzera barreiaturik» zapaltzen dituzten arretaz fatxada barroko eta gotikoak, zeure isla edo pasatu den hodeiarena ahaztu gabe. «Margotu hori!» xuxurlatzen dizu neguko argiak, ospitale bateko adreiluzko horman geldirik edo etxera iritsita San Zaccaria-ko *frontone*-ko paradisuari, kosmosean barrena luze ibili ondoren. Eta zuk argi horren nekea sentitzen duzu Zaccariako maskor marmolezkoetan ordubetez-edo atsedean hartzen duenean, lurra eguzkiari beste masaila jartzen dion bitartean. Neguko argia da hau, haren garbitasun gorenean. Ez dakar berorik ez energiarik, galdu egin ditu, atzean utzi nonbait unibertsoan, edo gertuko kumuluren batean. Haren



partikulen desira bakarra da objektu batera iritsi eta berau, handia zein txikia, ikusgai egitea. Argi pribatu bat da, Giorgioneren edo Belliniren argia, ez Tiepoloren edo Tintoretoren argia. Eta hiria argi horretan gelditzen da haren ukitua, sortu duen infinituaren laztana, dastatzeko. Azken finean, objektu bat da infinitua pribatu bilakatzen duena.

Eta objektua munstro txiki bat izan daiteke, burua lehoiarena eta izurdearena gorputza. Bigarrena kiribildu da, lehenak letaginak karraskatu ditu. Munstroa apaingarria izan daiteke sarrera batean, edo horma batetik sortu besterik gabe, inolako asmo agerikorik gabe, eta asmorik ez izate horrek bitxiki ezaguterraza egiten du. Lan-ildo jakin batekin eta adin jakin batean, asmorik ez izatea konturik ezaguterrazena da. Gauza bera gertatzen da bat egiten dutenean bi ezaugarrik edo bereizgarrik edo gehiagok, generoei buruz ez mintzatzearren. Oro har, mitologiatik (berez surrealismo klasikoaren estatusa izan beharko lukeen mitologiatik) datozkigun izaki amesgaiztoko horiek guztiak —herensugeak, gargolak, basiliskoak, esfinge titidunak, lehoi hegodunak, zerberoak, minotauroak, zentauroak, kimerak— gure autorretratuak dira, neurri batean espezieak izan duen eboluzioaren oroimen genetikoa adierazten baitute. Ez da harrizkoa ugariak izatea hemen, uretatik sortutako hiri honetan. Beste behin ere, ez dago ezer freudianorik haietan, ez dago ezer sub- edo inkontzienterik. Giza errealitatea den

bezalakoa izanda, ametsen interpretazioa tautologia bat da eta, kasurik onenean, egun-argiaren eta ilunaren arteko proportzioak baino ezingo luke justifikatu. Zalantzakoa da, hala ere, printzipio demokratiko hori eraginkorra izatea naturan, naturan ezerk ez baitu gehiengoa. Ezta urak ere, den-dena, bere burua barne, islatu eta errefraktatzen duen arren, formak eta muinak txandakatuz, batzuetan leunki, bestetzuetan munstroen modura. Horrek azaltzen du neguko argiaren kalitatea hemen; horrek azaltzen du munstro txikiei zein kerubinei argiak dien maitasuna. Ziur aski, kerubinak ere espeziearen eboluzioaren parte dira. Edo bestela alderantziz da, zeren, errolda egingo balitz hiri honetan, agian kerubinak biztanleak baino gehiago izango bailirateke.

Munstroek, baina, kerubinek baino arreta gehiago erakartzen dute. Bakarrik bada ere, munstro hitza bestea baino sarriago aurpegiratu diotelako norberari; bakarrik bada ere, gurean hegoak aireko armadan bakarrik irabazi ahal direlako. Gure kontzientzia erruduna nahikoa izango litzateke marmolezko, brontzezko edo igeltsuzko asmakizun horietako edozeinekin geure buruak identifikatzeko, herensugearekin, demagun, San Giorgiorekin baino. Luma bat tintontzian bustitzea eskatzen duen lan mota izanda, norbera biekin identifikatu ahal da. Azken buruan, munstrorik gabe ez dago santurik, tintak olagarroarekin duen kidetasunaz ez hitz egiteagatik. Baina ideia horri buruz gehiegi hausnartu edo islatu edo errefraktatu gabe ere, argi dago hiri hau arrainena dela, harrapatuta egon nahiz igerian oraindik. Eta arrain batek ikusita —giza begi batez horniturik, berezko distortsio ospetsua saihesteko— gizakia benetako munstro bat bezala agertuko litzateke; ez zortzi hankako olagarroa, beharbada, baina bai lau hankakoa ziur aski. Arraina bera baino gauza askozaz ere konplexuagoa, gutxienez. Ez da harritzekoa, beraz,

marrazoak gure atzetik hain temati ibiltzea. Urraburu arrun bati, *orata* arrunt bati —ez harrapatuta, baizik eta aske dagoenari— galdetuz gero zer uste duen gure itxuraz, erantzuna izango litzateke: munstro bat zara. Eta haren ahotsaren konbentzimendua oso ezaguna izango litzaiguke, begia ziape-eta-ezti koloreko edukiko balu bezala.

Beraz, labirinto hauetan zehar mugitzen zarenean, ez dakizu inoiz helburu baten atzetik zabiltzan edo zeure buruarengandik ihesi, ehiztaria zaren edo harrapakina. Zalantzarik gabe, ez santu bat, baina beharbada ezta benetako herensuge bat ere; nekez zara Teseo bat, baina ezta Minotauro bat neskatoen gose ere. Bertsio greziarrak, halere, itxura hobea du, zeren hiltzaileak eta biktimak harremana baitaukate, eta irabazleak ez du ezer lortzen. Munstroa, azken batean, sariaren nebaerdia zen; nolana ere, heroiares emaztea izango zenaren nebaerdia. Ariadna eta Fedra ahizpak ziren eta, dakigunaren arabera, atenastar adoretzuak biez gozatu zuen. Egia esan, ezkontzaren bidez errege kretarren familian sartzeari begira, mandatu hiltzailea onar zezakeen Teseok, familia errespetagarriagoa egiteko. Heliosen bilobak zirenez, neskak garbiak eta distiratsuak zirela uste zuten; beren izenek horixe iradokitzen dute. Zergatik zen, bestela, haien ama, desira ilunez betetako Pasifae, Guztiz Distiratsua? Eta agian, desira ilun horiek zirela eta, amore eman zuen, eta zezenarekin zera zeratu,

frogatzeko naturak ez duela gehiengoaren printzipioa kontuan hartzen, zezenaren adarrek ilargia iradokitzen baitute. Agian argi-ilunetan interesatuago zegoen zoolifilian baino, eta arrazoi optiko hutsengatik eklipsatu zuen zezena. Eta zezena, zeinaren pedigri sinbolismoz zamaturikoa haitzuloetako margoetaraino eraman daitekeen, oraingo honetan Dedalok Pasifaerentzat eginiko behi artifizialarekin engainatzeko nahikoa itsututa egoteak frogatzen du Pasifaeren leinua aurrean zihoala oraindik kausalitate sisteman, Heliosen argiak oraindik bilakatzen zuela Pasifae guztiz distiratsua lau seme-alaba izan ondoren (bi neska bikain eta bi mutil alfer). Kausalitatearen printzipioari dagokionez, gehitu egin behar da istorio honetan heroi nagusia Dedalo dela, behi oso sinesgarri bat egiteaz gain, labirintoa ere eraiki zuena —oraingoan erregearen eskariz—. Labirinto horretan bertan egunen batean zezen-buruko ondorengoa eta haren hiltzailea aurrez aurre borrokatzera behartuta egongo dira; ondorio latzenak, jakina da, zezen-burukoarentzat izango dira. Neurri batean, kontu guztia Dedaloren garunetik jaiotzen da, labirintoa batez ere, garunaren itxura baitu. Neurri batean, mundu guztia da mundu guztiaren senidea, jazarlea jazartuarena, gutxienez. Ez da harritzekoa, beraz, zerbait tautologikoa izatea hiri honetako kaleetan barrena nora gabe ibiltzea (gogoratu hiru mendetan zehar Kreta izan zela hiri honen kolonia nagusia) batez ere argia desagertzen denean, hau da, bere ezaugarri pasifaiko, ariadniko eta fedrikoak ahultzen direnean. Bestela esanda, batez ere gauez, norbera bere buruaren mespretxuan galtzen denean.

Alde distiratsuenean lehoi pilo bat dago, jakina: hegodunek liburu irekia erakusten dute «*Pax tibi, Marce, Evangelista meus*» leloarekin, eta gero badira lehoi itxura arrunta duten lehoiak. Hegodunak, zentzurik hertsienean, munstro kategoriaren barruan daude. Nire lanbidea dela eta, hala ere, lehoi hegodun horiek Pegaso mota arinago eta ikasiago bat kontsideratu ditut beti, Pegasok hegan egingo luke ziur aski, baina irakurtzeko ahalmenari dagokionez zalantza gehiago dago. Dena dela, atzaparra apatxa baino tresna hobea goa da orriak pasatzeko. Hiri honetan lehoiak nonahi daude, eta urteak joan urteak etorri, nahi gabe totem hori neure egin eta azkenean lehoi horietako bat jarri nion nire liburuetakoko bateko azalari; nire lanbidea duen edonorentzat hori da fatxada bat edukitzetik gertuen egon daitekeen egoera. Baina hala ere, munstroak dira, hiriaren fantasiatik sortuak direlako besterik ez bada ere, bere itsas boterearen gorenean ere errepublika honek ez zuen inoiz animalia egon zitekeeneko lurralderik kontrolatu, hegorik gabeko forma arrunteko animalia ez behintzat. (Greziarrek gehiago asmatu zu-



ten zezenarekin, haren pedigri neolitikoa gorabehera.) Ebanjelariari berari dagokionez, Alexandrian, Egipton, hil zen —berez— eta ez zen inoiz safari batera joan. Oro har, kristautasunak lehoiekin izan duen harremana hutsaren hurrengoa izan da, haren menpeko lurraldeetan ezin baitzituen aurkitu, lehoiak Afrikan bakarrik bizi zirelako, eta bertan, gainera, basamortuetan. Horrek, jakina, lagundu egin zuen gerora lehoiak basamortuko eliz gurasoekin elkartzan; horrez gain, kristauak Afrikako kostaldeetatik ikuskizunetarako ekarritako lehoien dietaren parte ziren. Lehoien exotismoak, hobe esan, lehoien existentziarik ezak, antzinakoen fantasia askatuko zuen, animaliei naturaz gaindiko hainbat ezaugarri emateko aukera emanez, tartean jainkozkoarekin harremanak izatearena. Beraz, ez da guztiz zentzugabea animalia Veneziako fatxadetan edukitzea San Markoren betiko atsedenen zaindari gisa, modu arras sinesgaitzean; hiria bera, Eliza ez bada, ikus liteke bere kumea babesten duen lehoi emebaten antzera. Hiri honetan, gainera, Elizak eta Estatuak bat egin dute ezin hobeki bizantziar erara. Kasu bakarretako bat da, gehitu behar dut, nahiko laster horrela egitea onuragarria izan zelako herritarrentzat. Ez da harritzekoa, beraz, lekua lehoi bilakatu izana, eta lehoia leku, biak, lehoia eta lekua, gurtu ahal izateko, hau da, lehoia gizatiarrago egiteko. Erlaitz bakoitzean, ia sarrera guztien gainean, lehoiaren muturra, giza begirada batekin, edo giza burua, lehoi hazpegiekin, agertzen dira. Biak ala biak, azken buruan, munstroztat jo daitezke (nahiz eta onbera motakoak izan), inoiz ez baitira existitu. Gainera, lehoiak beste edozein irudi zizelkatu edo landu baino askoz ugariagoak dira, Madonnaren edo Salbatzaile Berarenak barne. Bestaldetik, errazagoa da piztia bat zizelkatzea giza irudia

baino. Funtsean, animalia-erreinuak ez du zorte handirik izan arte kristauan, doktrinaz ez hitz egiteagatik. Beraz, *Felidae*ak direla eta, hemen dagoen harrotasuna erreinu horren mendeku moduan har daiteke. Neguan, ilunabarra argitzen digute.



Behin, ilunabarrak begi-nini grisak ilundu baina ziape-eta-ezti kolorekoak urrez betetzen zitueneko batean, azken horien jabeak eta biok Egiptoko gerraontzi bat —gurutzontzi azkar bat, zehatzak izateko— aurkitu genuen *Fondamenta dell’Arsenale*-n amarraturik, Giardinietatik gertu. Ez dut orain izena gogoratzen, baina haren jatorrizko portua Alexandria zen zalantzarik gabe. Itsasontzigintzatik ateratako tramankulurik modernoena zen, era guztietako antenak, radarrak, parabolikoak, misil-jaurtigailuak, dorretxo antiairekoak eta abar zituena, kalibre handiko kanoi ohikoez gain. Urrutitik ezinezkoa zen nazionalitatea asmatzea. Hurbiletik ere zalantza sor liteke, uniformeek eta eskifaiaren itxura orokorrak britainiarrak ematen zituztelako. Bandera jaitsita zegoen, eta *laguna*-ren gaineko zerua gorri-moretik porfido ilunera ari zen aldatzen. Geure buruari harriturik galdetu genion zein izango litzatekeen gerraontzia honaino ekarri zuen misioaren izaera: konponketak egiteko premiaren bat?, Veneziaren eta Alexandriaren arteko amodio berri bat?, Alexandrian XII. mendean lapurtutako erlikia

sakratua berreskuratzea? Eta bat-batean bozgorailuek bizia hartu eta zera entzun genuen: «Allah! Akbar Allah! Akbar!». Muezinak ilunabarreko otoitzaren ordua zela gogoratu zion eskifaiari, ontziko bi masta minarete bilakatu ziren une batez. Berehala, gerraontziak Istanbulen silueta hartu zuen. Bat-batean sentituen norbaitek mapa tolestu egin zuela edo historiako liburua itxi neure begien aurrean. Edo liburu hori, gutxienez, sei mende laburragoa zela. Kristautasuna ez zen Islama baino zaharragoa. Bosforoa Adriatikoaren gainean zegoen eta ezinezkoa zen esatea zeinena zen olatu hori edo hura. Arkitektura urrun gelditu zen.

Neguko gauetan itsasoak, ekialdeko haize tematiak bultzatuta, ubide guztiak betetzen ditu ertzeraino, bainuontziak izango balira bezala, eta batzuetan ertz horiek ere gainditzen ditu. Inor ez da sototik igotzen «Hoditeria!» oihuka, ez baitago sotorik. Hiria uretan dago orkatileraino, eta ontziak, «hormetan lotuta animaliak bezala», Kasiodoro aipatzearen, jauzika ari dira. Erromesaren zapata, ura dastatu duena, bergailuaren gainean, hoteleko gelan, lehortzen ari da; veneziarra armairuan murgiltzen ari da gomazko botak arrantzatzeke. «*Acqua alta*» dio ahots batek irratian eta giza trafikoa gutxitzen da. Kaleak hustu egiten dira; dendak, tabernak, jatetxeak eta trattoriak itxi. Kartelek bakarrik segitzen dute piztuta, beren buruak erakutsi ahal izateko, azkenik, nartzisismo ariketa batean, kaiak ubideetako uraren mailara iristen diren bitartean, laburki, azaletik. Elizak ordea zabalik daude, baina ur gaineratik ibiltzea ez da kontu berria apaizentzat, ez eliztarrentzat; ezta musikarrentzat ere: uraren biki hori.

Orain dela hamazazpi urte, *campo* batetik bestera noraezean nenbilela, gomazko bota berde pare batek eraikin arrosa txiki baten sarreraraino eraman ninduen. Horman plaka bat ikusi nuen, Antonio Vivaldi, garaia baino lehen jaioa, eliza hartan bataiatu zutela zioena. Egun haietan arras ilegorria nintzen oraindik; sentimental jarri ninduen «apaiz gorri» haren bataio lekuan egoteak; hainbeste poz eman dit hainbeste alditan Jainkoak ahaztutako munduko hainbat lekutan. Eta gogoratu nuen Olga Rudge izan zela hiri honetan lehen Vivaldi *settimana* antolatu zuena, Bigarren Mundu Gerra hasi baino egun batzuk lehenago. Polignac kontesaren palazzo-an izan zen, norbaitek kontatu zidanez, eta Olga Rudgek biolina jo zuen. Behin, jotzen ari zelarik, konturatu zen, begi-bazterrez begiratuta, bazela gizon bat *salone*-ra sartu eta ate ondoan zutik geratu zena, ez baitzegoen eserleku librerik. Pieza luzea zen, eta orain apur bat kezkatuta zebilen, jotzeari utzi gabe, orria pasa behar zuen pasarte batera iristen ari baitzen. Begi-bazterretik ikusten zuen gizona mugitzen hasi eta laster desagertu zitzaion ikuseremutik. Pasarte gero eta gertuago zegoen, eta gero eta urduriago zegoen bera. Orduan, orria pasa behar zuen unean bertan, esku bat atera zen ezkerretik, atrileraino ailegatu eta buelta eman zion astiro orriari. Jotzen segitu zuen eta, pasarte zaila amaitutakoan, begiak ezker aldera altxatu zituen eskerrak emateko. «Eta horrela», esan zion Olga Rudgek nire lagun bati, «ezagutu nuen Stravinski».

Elizara sar zaitezke eta bertan geratu ofizioak iraun bitartean. Kantua apur bat ahula izango da, eguraldi txarragatik, ziur aski. Horrela barkatzeko gai bazara, Hartzaileak barkatuko du era berean, zalantzarik gabe. Gainera, ezin duzu ofizioa ondo segitu, izan itazieraz izan latinez. Beraz, zutik gelditu edo atzeko banku batean eseri eta entzuten duzu: «Meza entzuteko modurik onena», esaten ohi zuen Wystan Auden-ek, «hizkuntza ez ulertzea da». Egia da, horrelakoetan ezjakintasunak kontzentrazioa laguntzen du, Italiako eliza guztietako argi eskasak erromesari kontzentratzen laguntzen dion bezala, batez ere neguan. Ez da dotorea, ofizioak egin bitartean, argiak pizteko gailuan txanponak sartzea. Are gehiago, sarritan ez duzu poltsikoan nahikoa txanpon irudiak osorik ikusteko. Garai batean New Yorkeko Polizia Saileko linterna indartsu bat eramaten nuen. Aberasteko modu bat, bururatu zitzaidan, izango litzateke flash bonbila txikiak egitea, argazki-makinetan jartzen dituzten bezalakoak, baina iraupen handikoak. «Flash Iraunkorra» deituko nieke edo, askoz hobe, *Fiat Lux*, eta urte pare baten buruan



apartamentu bat erosiko nuke San Lio-n edo Salute-n, hor nonbait. Nire bazkidearen idazkariarekin ere ez-konduko nintzateke, baina ez du idazkaririk, ez baita existitzen... Musika apaldu egiten da; haren bikiak, baina, gora egin du, irtetea deskubritu duzu, ez asko, baina desagertzen den koruaren kantuagatik konpen-tsatuta sentitzeko adina gutxienez. Zeren ura korala ere baita, arrazoi askorengatik. Gurutzatuak, merkata-riak, San Markoren erlikia, turkiarrak, mota guztietako zamaontzi, gerraontzi eta aisiako ontziak garraiatu dituen ur bera da; ororen gainetik, hiri honetan noiz-bait bizi eta, jakina, hemen geratu diren guzti-guztiak islatu dituen ura, kale hauetan ibili eta zikindu diren guztiak, zuk orain egiten duzun bezala. Ez da harritze-koa egunez berde lohitsu bada, eta gauez bikea bezain beltza, zeruarekin lehian. Miraria da, mila urte baino gehiagoz on guztiak zein txar guztiak higatu arren, zulaturik ez egotea, H<sub>2</sub>O izatea oraindik, baina ez ze-nuke inoiz edango, noski; miraria, gora egiten duela oraindik. Egia esan, musika paperaren antza du urak, ertzak urraturik, behin eta berriro erabilia, marea be-zala iristen zaizkizu partiturak, ubideak konpas-barra dira *obbligati* kontaezinekin: zubiak, leiho bikoitzak edo Codussi-ren elizetako gainalde makotuak, gondoletako biolin lepoak ahaztu gabe. Egia esan, hiri osoak, batez ere gauez, orkestra erraldoia ematen du, palazzoen atril gutxi argiztatuak, olatuen koru urduria, izar ba-ten falsettoa neguko zeruan. Musika, jakina, orkestra baino handiagoa da, eta ez dago eskurik orria pasatu ahal izateko.

Horrek orkestra kezkatzen du, edo zehatzago esatearren, zuzendariak kezkatzen ditu, hiriaren gidariak. Haien kalkuluen arabera, hiria hogeita hiru zentimetro hondoratu da mende honetan soilik. Turistarentzat ikusgarria izan daitekeena eskala handiko buruko mina da bertakoentzat. Eta buruko mina bakarrik izango balitz, ez legoke gaizki. Baina buruko minak badu bere gaina, gero eta gehiago handitzen ari den larritasuna, beldurra ez esategatik, iradokitzen duena hiriaren patua, azken finean, Atlantidarena izango dela. Beldurra ez da funtsik gabekoa, eta ez bakarrik hiriaren berezitasunak berezko zibilizazio bilakatu duelako. Arrisku nagusia neguko itsasgorak dira; gainerakoa beren hondakin kimikoak lagunara bidaltzen dituzten kontinenteko industriak eta nekazaritzak egiten dute, bai eta hiriko ubide buxatuen hondatzeak ere. Nire lanbidea duen edonork badaki, ordea, Erromantizismotik hona gutxienez, hondamendia iristen denean gizakien hutsegiteak direla errudunagoak edozein *forza del destino* baino. (Aseguru agente batek bi gauza horiek bereiztea irudimenaren balentria

da.) Zera: nik, bulkada tiranikoeek harrapaturik, uhate moduko bat jarriko nuke gizateriaren itsasoa geldiarazteko, azken bi hamarkadetan bi mila milioi hazi den gizateria hori, zeinaren gandorra zaborra baino ez den. Industria izoztuko nuke, eta murriztu *lagunaren* ipar kostaldean, hogeita hamar kilometroko eremu batean, bizi ahal izateko aukera, hiriko ubideak dragatu eta garbituko nituzke (operazioa burutzeko armada erabiliz, edo bertako konpainiak, baina bikoitz ordainduz) eta arrainez eta bakterio mota egokiez beteko nituzke txukun mantentzeko.

Ez dakit zer arrain edo bakterio mota diren horiek, baina ziur naiz badirela horrelakoak, tirania oso gutxitan da gaitasunaren sinonimoa. Edonola ere, Suediara deitu eta aholkua eskatuko nioke Stockholmeko udalari: hiri horretan, dituen industria eta biztanle guztiakin ere, hoteletik ateratzen zaren unean bertan, izokinek uretatik salto egiten dute zu agurtzeko. Hori lortzen duena tenperaturaren diferentzia bada, saia gintezke izotz blokeak ubideetara botatzen edo, bestela, horrek huts egiten badu, veneziarren izozkailuetatik izotz-koskorrak aldian-aldian atera, whiskia ez baitago modan hemen, ezta neguan ere.

«Zergatik, bada, joaten zara hara horrelako urtaroen?», galdetu zidan behin New Yorkeko jatetxe txinatar batean nire editoreak, gay ingelesez inguraturuta. «Bai, zergatik?», errepikatu zuten, balizko ongilearen oihartzun gisa. «Nolakoa da hura neguan?». *Acqua altari* buruz zerbait kontatzea pentsatu nuen; grisak leihoan hartzen dituen ñabardurei buruz, hotelean gosaltzera esertzen zarenean, isiltasunak eta ezkonberrien aurpegietako izerkari goizekoak inguraturik; usoei buruz, bertako barrokoak dituen erlaitz eta makurdura guztiak nabarmentzen dituztenean, arkitekturarekiko kideta-

sun estuagatik; Francesco Querini-k eta bere bi husky txakurrek duten monumentu bakartiari buruz, Istriako harrian zizelkaturik, ipar polora egindako bidaia zorigaitzoko hartan, hiltzean, ikusi zuen azkenaren kolore berekoan, uste dut, eta gaur egun Giardinietako hosto iraunkorren xuxurlari adi, Wagner-en eta Carducci-ren konpainian; txolarre ausart bati buruz, gondola bateko ertz kulunkarian pausaturik, atzean sirokoak astindutako infinitu hezea duela. Ez, pentsatu nuen, haien aurpegi fazati baina grinatsuei begira; ez, horrek ez du ezertarako balio. «Zera», esan nuen, «Greta Garbo igerian bezalakoa da».



Urte hauetan guztietan zehar, hemen egin ditudan egonaldi luzeetan zein bisita laburretan, ia neurri berean izan naiz zorionekoa eta zoritxarrekoa, nik uste. Baina horrek ez du axolarik, ni ez bainintzen hona etortzen helburu erromantikoekin, lan egiteko baizik, zerbait bukatzeko, itzulpen bat egiteko, poema pare bat idazteko, zortea baldin banuen behintzat; hemen egoteko, besterik gabe. Hau da, inoiz ez eztei-bidaia baterako (horrelako kontu batetik gertu egon nintzen orain dela urte asko Ischia-ko irlan, edo Sienan), ezta dibortzio baterako ere. Eta horrela lan egiten nuen. Zoriontasuna edo zoritxarra etortzen ziren besterik gabe, nahiz eta batzuetan ni baino denbora gehiago geratu, zerbitzariak balira bezala. Aspaldidanik sinesten dut norberaren bizitza emozionalarekin zarata gehiegirik ez sortzea bertute bat dela. Beti dago egin beharreko nahikoa lan, ahaztu gabe hor kanpoan nahikoa mundu dagoela. Azken finean, beti dago hiri hau. Existitzen den bitartean, ez dut uste tragedia erromantiko batek ni edo, egia esan, beste inor hipnotizatu edo itsutu dezakeenik. Egun bat gogoratzen dut, hemen bakar-

bakarrik hilabetea eman ondoren alde egin behar izan nuen egun bat. *Trattoria* txiki batean bazkaldu nuen, Fondamente Nuove-etako bazter urrunenean, arrain errea eta botila erdi bat ardo. Hori guztia barruan, hartua nuen ostaturantz hurbildu nintzen maletak jaso eta, geroago, *vaporettoa* hartzeko. Kilometro erdi bat egin nuen Fondamente Nuove-etan zehar, mugitzen den puntu txiki bat dira akuarela erraldoi hartan, eta gero eskuinaldera jo nuen Giovanni e Paolo ospitale-tik. Eguna epela zen, eguzkitsua, zerua urdina, dena zoragarria. Fondamente eta San Michele atzean utzirik, ospitaleko hormaren kontra estututa, ezkerreko sorbaldarekin igurzten nuela, eta begiak eguzkitara txitxilduz, zera sentitu nuen bat-batean: katu bat nintzela. Arraina jan berri duen katu bat. Une hartan norbaitek hitz egin izan balit, miauka erantzungo nion. Zoriontsua nintzen, guztiz, osoki, abereki. Hamabi ordu geroago, jakina, New Yorke lurreratu eta gero, topo egin nuen bizitza osoan izan dudak iskanbila handienarekin; edo horrela iruditu zitzaidan garai hartan. Baina katuak nire baitan segitzen zuen; katu horrengatik izan ez balitz, burutik joanda egongo nintzateke orain instituzio garestiren batean.

Gaez ez dago gauza handirik egiteko hemen. Opera eta elizetako kontzertuak aukerak dira, jakina, baina inizatiba hartu behar da eta kontua prestatu: sarrerak eta ordutegiak eta gainerakoa. Ez dut horretarako balio. Bazkari oso bat norberarentzat prestatzea bezalakoa da, bakartiagoa beharbada. Gainera, ez dut zorte handirik izan, La Fenice-ra joatea kontsideratu dudan bakoitzean, Txaikovski edo Wagner astea zuten han, bi-biak berdin-berdinak nire alergiari dagokionez. Behin ere ez Donizetti edo Mozart! Horrek irakurketa eta noragabe paseatzea uzten du soilik, ia gauza bera dena, gaez harrizko kalezulo hauek egundoko biblioteka ahaztu bateko apalategien arteko pasabideak bezalakoak dira, lasaiak. «Liburu» guztiak ondo itxita daude, eta zertaz ari diren igar daiteke soilik bizkarretan, txirrinen azpian, dauden izenengatik. Hor aurki ditzakezu zure Donizzeti eta Rossini guztiak, zure Lully eta zure Frescobaldi guztiak! Beharbada Mozart bat ere, beharbada Haydn bat ere. Edo bestela kale hauek armairu bateko apalak bezalakoak dira; jantzi guztiak oihal ilun eta higatuzkoak dira, baina barrukoak errubi



eta urre distiratsuzkoak. Goethek «kastoreen errepublika» deitu zion leku honi, baina agian Montesquieuk gehiago asmatu zuen «*un endroit ou il devrait n'avoir que des poissons*» seguru harekin. Izan ere, noizbehinka, ubidearen beste aldean, bizpahiru leiho ongi argiztatu, altu eta arkudunek, gazaz edo tulez erdi estalita, zera ikusten uzten dute: olagarroaren antza duen sabailanpara bat, isats-piano bateko hegal lakatua, brontze bikainezko markotan olio-pintura gaztainakarak edo gorritzak, sabaiko habeen urrezko bular-kaiola; eta badirudi arrain bati begira zaudela, haren ezkatetan zehar, eta arrainaren barruan festa bat dago.

Urrutitik, ubidearen beste aldetik, nekez bereiz daitezke gonbidatuak eta ugazabandrea. Eskura dugun teoria onenari zor zaion begirune guztiarekin, esan behar dut ez dudala uste leku hau kordatu ospetsu haren eboluziotik datorrenik, garaile izan ala ez. Susmatzen dut eta iradoki, lehenik eta behin, kordatu horri bizia eta aterpea eman zion elementu beretik eboluzionatu zuela, eta elementu hori niretzat behintzat, denboraren sinonimoa da. Elementua forma eta ñabardura askotan agertzen da, ezaugarri desberdin askorekin, Afroditik edo Salbatzaileak dituztenez gain: bare, ekaitz, gandor, olatu, apar, izur eta abar, itsas organismoak ahaztu gabe. Nire iritziz, hiri honek laburbiltzen ditu elementuaren eta bere edukiaren eredu bereizgarri guztiak. Dena zipriztinduz eta izarniatuz, dirdiratsu eta ñirñirka, elementuak hainbeste denbora eman du bere burua gorantz jaurtitzen, ezen ez dela harritzekoa alderdi horietako batzuek azkenean mamia hartu izana edo haragia, eta solido bihurtu. Zergatik gertatu behar zuen hori hemen, ez dut ideiarik ere. Ziurrenik elementuak italiara entzun zuelako hemen.

Begia da gure organoetan autonomoena. Hori gertatzen da bere arretaren objektuak kanpoaldean kokatuta daudelako ezinbestean. Ispilu batean izan ezik, begiak ez du inoiz bere burua ikusten. Gorputza lokartzen denean, ixten den azkena da. Irekita geratzen da gorputza paralisiak jota edo hilda dagoenean. Begiak errealitatea erregistratzen segitzen du, horretarako arrazoi nabaririk ez denean ere, eta egoera guzti-guztietan. Galdera da: zergatik? Eta erantzuna: ingurunea gure aurkakoa delako. Ikusmena da ingurune horretara egokitzeko dugun tresna, ingurunea gure aurkakoa baita beti guk ahaleginak egin arren. Ingurunearen aurkakotasun hori bertan ematen duzun denboraren arabera handitzen doa, eta ez naiz zahartzaroaz bakarrik mintzatzen ari. Laburbilduz, begiak segurtasuna bilatzen du. Horrek azaltzen du zergatik begiak nahiago duen artea oro har, eta Veneziako artea bereziki. Horrek azaltzen du begiak edertasunarekiko duen gogoa, baita edertasunaren existentzia bera ere. Zeren edertasuna kontsolamendua baita, segurua den une beretik. Ederetasunak ez ditu herio mehatxurik egingo, edertasunak

ez zaitu gaixotuko. Apoloren estatua batek ez dizu kosk egingo, ezta Carpaccio-ren ur-txakurrak ere. Edertasunik —kontsolamendurik, beste izenez— aurkitzen ez duenean, begiak sortzeko agintzen dio gorputzari, edo, horrek huts egiten badu, bere burua egokitzen du itsusian bertuteren bat hautemateko. Lehenengo kasuan giza jenioa da oinarria; bigarrenean, gure apaltasunaren erreserba. Azken hori ugariagoa da; eta gehiengo guztiek bezala, legeak emateko joera du. Jar dezagun adibide bat hori guztia argitzeko: neska gazte bat. Adin jakin batean, pasatzen diren neskei interes praktikorik gabe begiratzen zaie, zera zeratzeko asmorik gabe. Apartamentu huts batean piztuta dagoen telebistaren antzera, begiak irudiak bidaltzen segitzen du: metro bat hirurogeita hamarreko mirari horiek guztiak eta, irudia osatzeko, ile gaztaina-kolore argia, Peruginoren aurpegi-obaloak, gazela-begiak, inude-bularrak, liztor-gerria, belus berde ilunez jantzita, tendoi zorrotzak. Begiak horrelako mirariak jo ahal ditu eliza batean, norbaiten ezkontzan, edo, are okerrago, liburudenda bateko poesia sailean. Urrutitik aski ikusten badu edo belarriaren aholkua eskuratzen badu, beren identitateak ikas ditzake (Arabella Ferri bezalako izen zirraragarriekin datozenak) eta, ai ene, beren leialtasun erromantikoak, bihozgabe irmoak. Alferrikakoak direla kontuan hartu gabe, begiak datu horiek guztiak jasotzen segitzen du. Are gehiago, zenbat eta alferrikoagoak izan datuok, orduan eta garbiagoa izango da fokoa. Galdera bada zergatik, erantzuna da edertasuna beti dela kanpokoak, baita erregelaren salbuespena ere. Horrek —kokapenak eta berezitasunak, alegia— oszilazio eroak sortzen dizkio begiari edo —apaltasun militantearen hizkeran— alderrai ibiltzera behartzen du. Edertasuna begiak atsedean hartzen duen lekuan

dagoelako. Sen estetikoa kontserbazio senaren bikia da, eta etika baino fidagarriagoa da. Estetikaren tresna nagusia, begia, erabat autonomoa da. Haren autonomian, malkoa baino apalagoa da soilik.



Leku honetan hainbat alditan isuri daiteke malko bat. Onartzen bada edertasuna dela erretinarako dagoen argiaren banaketarik atsegina, orduan malkoa da erretinak, eta era berean malkoak berak, edertasuna atxiki ahal izateko duten ezintasunaren aitortza. Oro har, maitasuna argiaren abiadurarekin iristen da; banaketa, soinuarenarekin. Abiadura handienetik txikienera dagoen narriadura da begia bustitzen duena. Izaki finituak garenez, hemendik alde egitea amaiera moduan sentitzen da beti; leku hau atzean uztea betiko uztea da. Izan ere, alde egiteak begiaren erbesteratzea dakar nora eta beste zentzumenen lurraldeetara; kasurik onenean, garunaren pitzadura eta arrailduretara. Begiak ez baitu bere burua dagokion gorputzarekin identifikatzen, bere arreta erakarri duen objektuarekin baizik. Eta begiarentzat, arrazoi optiko hutsengatik, alde egitea ez da gorputzak hiria uztea, hiriak beginiria uztea baizik. Era berean, maitearen desagerpenak, pixkanaka denean batez ere, oinazea sortzen du, nor izan den joan dena, eta zeintzuk izan diren arrazoi peripatetikoak, kontuan hartu gabe. Bizi garen munduan

hiri hau da begiaren amodiorik handiena. Haren ondoren, dena da desengainua. Malkoak aurreratzen du zein izango den begiaren etorkizuna.

Jakina, mundu guztiak ditu proiektuak hiri honetarako. Politikariek eta enpresa handiek batez ere, zeren ezerk ez baitu etorkizun handiagorik diruak baino. Horrela, diruak, etorkizunaren sinonimoa dela uste duenez, etorkizuna bera programatu nahi du. Hortik datoz hiria berritzeko ufada hutsal ugari horiek guztiak: Venetoko probintzia osoa Erdialdeko Europarako sarrera bihurtzea, eskualdeko industria sustatzea, Margherako portu multzoaren hedapena, *lagunan* petrolio-ontzien trafikoa handitzea eta hori bera lortzeko *laguna* sakonago egitea, Veneziako Arsenale-a, Dantek hilezkortu zuena, Beaubourg-en karkaxa-baliokide bilakatzea, bertan pilatzeko botatako azken flemak, 2000. urtean Expo bat hemen antolatzea eta abar. Ergelkeria horiek guztiak ekologiaz, babesaz, zaharberritzeaz, kultura ondareaz eta gainerakoaz berrikerian diharduen aho beretik sortzen dira borborka normalean, eta askotan arnasaldi berean. Horren guztiaren helburua zera da: bortxaketa. Hala ere, bortxatzaile batek ere ez du bere burua halakotzat hartu nahi, eta are gutxiago harrapatua izatea. Hortik datoz *commendatore* zein par-



lamentuko diputatuen bularrak upelak bezala puzten dituzten helburu eta metaforen nahasketak, erretorika arranditsuak eta suhartasun lirikoak.

Hala ere, nahiz eta pertsonaia horiek turkiarrak, austriarrak eta Napoleon guztiak batera baino askoz ere arriskutsuagoak izan —kaltegarriagoak, zinez— diruak jeneralek baino batailoi gehiago baititu, hiri hau bisitatu ditudan hamazazpi urte hauetan oso aldaketa gutxi nabaritu dut. Venezia salbu dago, Penelope bezala, haren ezkongaien arteko lehiari esker, kapitalismoaren izaera lehiakorra ur handiko arrainen eta alderdi politikoen arteko odol harremanetara murriztuta gelditzen da. Besteen gurpiletan makila sartu behar denean, demokrazia primeran dabil, eta gobernu italiarren txorro-morro jolasak erakutsi du horixe dela hiriak duen asegururik onena. Hiriko puzzle politikoaren mosaikoa ere horrelakoa da. Ez dago dux gehiagorik, eta ikuspegi berezi baten handitasunak ez ditu 118 irla hauetako 80.000 biztanleak gidatzen, gida bakarra beren kezka hurbilekoenak dira, epe laburrekoak edo miopeak askotan, hilabete amaierara iristeko duten nahiak.

Epe luzeko aurreikuspenak, baina, kaltegarriak izan daitezke. Hain txikia den leku batean hogeit hamar langabetu gehiago bat-bateko buruko mina dira udalerako, eta horrek, irlakoek kontinentearekiko duten mesfidantza berezkoa ahaztu gabe, kontinente horretatik datozen proiektuak, zoragarriak izan arren, gaizki hartzea dakar berarekin. Beste leku batzuetan erakargarriak diren arren, enplegu unibertsalaren edo hazkundearen promesek ez dute zentzu handirik hamahiru kilometroko zirkunferentzia duen hiri batean, bere itsas aberastasunaren gorenean ere 200.000 bizilagun baino gehiago izan ez zituena. Proiektu horiek

dendari bat hunkitu dezakete, edo agian mediku bat, baina ehorztetxearen jabeak zalantzak izango lituzke, bertako hilerriak gainezka daudenez, hildakoak kontinentean lurpetu behar direlako orain. Azken finean, horretarako balio du kontinenteak.

Ehorztetxearen jabea eta medikua alderdi politiko desberdinetakoak izango balira, dena ondo joan eta aurrerapen batzuk egitea posible izango litzateke. Hiri honetan, askotan, alderdi berekoak dira, eta gauzak nahiko goiz gelditzen dira ez aurrera ez atzera, baita alderdia Alderdi Komunista denean ere. Laburbilduz, nahigabe, edo bestela, dauden borroka horien guztien azpian egia handi bat datza, irlak ez direla hazten. Horixe da diruak, hau da, etorkizunak, hau da, politikari aldaberek eta ur handiko arrainek ulertzen eta jasaten ez dutena. Okerragoa dena, leku honek erronka jo diela sentitzen dute, edertasunak, berez *fait accompli* benetakoko batek, etorkizunari erronka jotzen diolako beti, kontsideratzen duelako etorkizuna orainaldi hanpatu eta indargabe bat dela, edo bera desegingo duen eremua. Hiri hau errealitatea bada (edo, batzuek dioten bezala, iragana), orduan etorkizuna, aurreko ezizen horiekin guztiekin batera, kanpo dago. Kasurik onenean, orainaldiaren baliokidea da. Eta beharbada ezerk ez du hori frogatuko arte modernoak baino hobeto, haren pobrezia bakarrik profetiko bilakatzen baitu. Pobreak orainari hitz egiten dio beti, eta agian Peggy Guggenheim-en bildumaren eta hemen erakutsi ohi diren mende honetako gauzen metaketa antzerakoen funtzioa da guri gogoraraztea zer jende zeken, harro, zikoitz eta ideia bakarreko bihurtu garen, geure buruei apaltasun apur bat irakastea: ezin da beste ondoriorik atera hiri Penelope honen atze-oihalaren gainean,

egunez hiljantzia ehuntzen duena eta gauez desegiten, Ulises gabe zerumugan. Soil-soilik itsasoa.

Hazlitt-ek esan zuen, uste dut, uretan dagoen hiri hau gaudituko lukeen gauza bakarra airean erai-  
kitako hiri bat izango litzatekeela. Italo Calvinoren  
ideia dirudi, eta batek daki, bidaia espazialen emaitza  
gisa, oraindik gerta daitekeen. Kontua doan bezala,  
ilargira iristeaz gain, mereziko luke mende hau go-  
goratzea leku hau osorik uzteagatik, bere horretan  
uzteagatik. Nire aldetik, esku-hartze leunen aurka  
ere jarriko nintzateke. Zinemaldiak eta liburu azo-  
kak, jakina, ondo ezkontzen dira ubideetako azalaren  
argi distiratsuarekin, sirokok urari irakurtzen dizkion  
zirrimarra kizkurrekin. Eta, noski, leku hau ikerketa  
zientifikoaren hiriburu bihurtzea aukera onargarria  
izango litzateke, edozein ahalegin mentalerako fosforo  
ugariko dietak dituen abantailak kontuan hartuta ba-  
tez ere. Amu bera erabil liteke Europako Batasunaren  
egoitza Bruselatik hona ekartzeko, edo Europako Parla-  
mentuarena Estrasburgotik. Eta, noski, irtenbide hobe  
bat izango litzateke hiriarri gehi inguruaren alde bati  
parke nazionalaren estatusa ematea. Hala ere, Venezia  
museo bihurtzeko ideia, odol berriarekin biziberritzeko  
irrika bezain zentzugabea dela esango nuke. Alde ba-  
tetik, odol berritza saltzen dena azkenean txiza zahar  
hutsa da beti. Eta bestetik, hiri hau ez dago egina mu-  
seo bat izateko, berez artelan bat baita, gure espezieak  
sortu duen maisulan handiena. Ez da margolan bat  
berpizten, eta are gutxiago estatua bat. Bakean uzten  
dituzu, bandaloen aurka babestu (kontuz, bandaloen  
hordan zu zeu egon zaitezke).

Urtaroak eskura ditugun kontinenteen metaforak dira, eta negua beti da zerbait antartikoa, baita hemen ere. Hiria ez dago ikatzaren mende lehen bezainbeste; orain gasa da. Tronpeta formako tximinia bikainak izateko arrazoirik gabe gelditu eta paisaia-tik desagertzen dira pixkanaka, Erdi Aroko dorretxoan antzekoak Madonna edo Gurutziltzaketa guztietako atzealdeetan. Ondorioz, dardarka hasi eta ohera joaten zara artilezko galtzerdiak oinetan, berogailuek ziklo erratikoei eusten baitiete hemen baita hoteletan ere. Alkoholak bakarrik xurga dezake gorputza zeharkatzen dizun tximista polarra oina marmolezko zoruan jartzen duzun unean, txapinekin edo txapin gabe, zapatekin eta zapata gabe. Gaeuz lan egiten baduzu, kandelazko partenonak erabiltzen dituzu, ez giroa sortu edo argi hobea izateko, baizik eta itxurazko beroagatik; edo bestela sukaldera joan, gasezko suak piztu eta atea ixten duzu. Hotza dario guztiari, bereziki hornei. Leihoeak ez dute axolarik, badakizu zer espero daitekeen. Azken finean, hotza pasatzen uzten dute bakarrik, baina hormek hotza gorde egiten dute. Go-

goan dut behin urtarrila eman nuela Fava elizatik gertu zegoen etxe batean, bosgarren solairuko apartamentu batean. Lekua Ugo Foscolo beraren ondorengo batena zen. Jabea basogintzako ingeniaria zen, edo horrelako zerbait, eta, jakina, kanpoan zegoen lan bidaiari. Apartamentua ez zen handia: bi gela, altzari gutxikoak. Sabaia, ordea, oso altua zen, eta, beraz, leihoak ere oso altuak ziren. Sei edo zazpi zeuden, apartamentua izikina batean baitzegoen. Bigarren astearen erdialdean berogailua itzali egin zen. Aldi hartan ez nengoen baka-rik, eta nire arma-laguna eta biok zozketatzen genuen nork egin behar zuen lo hormaren ondoan. «Zergatik joan behar dut beti hormaren ondora?», galdetu zidan emakumeak alde zurretik. «Biktima naizelako?» Eta, galtzean, sinesgaiztasunak ziape eta ezta koloreko begiak ilundu zizkion. Gaua pasatzeko arropa pilo bat jantzi zuen —artilezko jertse arrosa, bufanda, galtzerdi luzeak— eta *uno, due, tre!* kontatu ondoren, ohera sartu zen, ibai ilun batera sartuko balitz bezala. Eta, seguraski, berarentzat, italiarra, erromatarra, zainetan odol greziar pixka bat ere zuena, horrela zen. «Ez nago ados Danterekin gauza bakar batean», azpimarratzen zuen, «Infernua deskribatzeko moduan, hain zuzen. Nire ustez, Infernua hotza da, oso hotza. Zirkuluak mantentzea ondo, baina izotzez egingo nituzke, eta espiral bakoitzean tenperaturak behera egingo luke. Infernua Artikoa da». Serio esaten zuen. Bufanda lepo eta buruaren inguruan, Francesco Querini ematen zuen, Giardinietako estatua hartan, edo Petrarkaren busto ospetsua (zeina, aldi berean, niretzat, Montaleren irudia bera baita; ala, hobeto esanda, alderantziz). Ez zegoen telefonorik han, tubak bezalako tximiniak harro altxatzen ziren nahas-mahasean neguko zeruan. Kontu osoak zera zirudien: Egiptorako Ihesa, bera ema-

kumearen eta haurraren paperean, eta ni izenkidearen eta astoarenean; azken finean, urtarrila zen. «Iraganeko Herodesen eta etorkizuneko Faraoiaren artean,» esaten nion neure buruari. «Herodesen eta Faraoiaren artean, hortxe bertan gaude». Azkenean gaixotu nintzen. Hotzek eta hezeek harrapatu ninduten; edo, hobe, operazioek hondatutako bularrean, giharrak eta nerbioak harrapatu zituzten. Izuak hartu zuen nire baitan dagoen bihotz-elbarria eta lagunak Pariserako trenera bultzaka igoarazi ninduen, ez geundelako oso ziur bertako ospitaleez, Giovanni e Paolo-ko fatxada izugarri maite dudan arren. Bagoia bero zegoen, buruko min ikaragarria nuen, nitroglizerinazko pilulen eraginez, konpartimentuan *bersaglieri* talde batek etxerako baimena ospatzen zuen Chianti edaten eta irrati-kasete handi batekin. Ez nekien Parisera iritsi arte aguantatuko nuen; baina nire beldurrarekin nahasten zen intuizio argi bat, egoera hartatik ateraz gero, denbora gutxiren buruan —ados, urtebete— leku hotz horretara, Herodesen eta Faraoiaren artean, itzuliko nintzela. Orduan ere, nire konpartimentuko egurrezko eserlekuan kuzkurturik, intuizio horren absurduaz jabetzen nintzen guztiz; baina nire beldurrean zehar ikusteko lagungarri gertatzen zitzaidan neurrian, absurdua ongietorria zen. Gurpilen zalapartek eta haien dardara etengabeak nire gorputzean izan zuen eraginak, nire gihar eta abarrekoak are gehiago konponduz edo hondatuz, gainerakoa egin zuela uste dut. Edo, beharbada, bagoian berogailua ondo zebilen, besterik gabe. Nolanahi ere, Parisera iritsi, egin zidaten elektrokardiograma balekoa atera eta Estatu Batuetarako hegazkina hartu nuen. Bestela esanda, istorioa kontatzeko bizi izan nintzen, eta istorioa errepikatzeko.



«Italia», zioen Anna Akhmatovak, «bizitza osoan itzultzen ari den ametsa da». Hala ere, esan beharra dago ametsen etorrera gorabeheratsua dela, eta haien interpretazioak aho zabalka uzten zaituela. Gainera, ametsak inoiz literatur genero gisa definituko beharko balira, bere estilo-baliabide nagusia, zalantzarik gabe, koherentziarik eza izango litzateke. Hori, gutxienez, orrialde hauetan orain arte gertatu denaren justifikazioa izan daiteke. Era berean, horrek azal dezake urte hauetan guztietan egin ditudan saiakerak amets horren itzulera errepikakorra ziurtatzeko, prozesuan nire superegoa nire inkontzientea bezain basaki erabiliz. Argi eta garbi esateko, ni neu izan naiz ametsera behin eta berriro itzultzen segitu duena, ez alderantziz. Nire bidearen puntu batean, jakina, indarkeria mota hori ordaindu behar izan nuen, dela nire errealitatea zena higatuz, dela ametsa ezaugarri hilgarriak hartzerara behartuz, arimak bizitzan zehar egiten duen bezala. Uste dut bi zentzuetan ordaindu nuela; eta ez zitzaidan axola, bigarren zentzuan batez ere, *Cartavenezia* (iraungitze data, 1988 urtarrila) baten forma hartuko



zuena nire diru-zorroan, haserrearen forma kolore bereziko begi haietan (data beretsuan bista atsegina-goetan finkatu zirenak), edo beste edozer gauza era berean finiturena. Errealitateak gehiago sufritu zuen, eta sarritan Atlantikoa zeharkatzean, etxerako bidean, historiatik antropologiara bidaiatzen ari nintzela sentitzen nuen oso modu argian. Hemen denbora, odola, tinta, dirua eta gainerakoa isuri edo xahutu baditut ere, ezin izan dut inoiz sinesgarritasunez aldarrikatu, ezta neure buruaren aurrean ere, bertakoen ezaugarriren bat hartu dudarik, veneziar, modurik xeheenean bada ere, bihurtu naizenik. Hotel edo *trattoria* bateko jabearen aurpegian irribarre lausoa ni ikustean ez da oso kontuan hartzekoa; eta hemen erositako arropak ez luke inor engainatuko. Apurka-apurka bi lekuetan behin-behineko egoiliar bihurtu naiz, eta etsigarriena, zalantzarik gabe, nire porrota izan da, ezin izan baitut ametsa konbentzitu ni bere baitan nagoela. Hori, jakina, ezaguna egiten zitzaidan. Hala ere, suposatzen dut leialtasuna erakusten dela nork maite duen lekura, urtez urte, okerreko urtaroen, itzultzen denean, berriro maitatua izateko inolako bermerik gabe. Zeren, edozein bertutek bezala, leialtasunak balioa baitu instintiboa edo idiosinkratikoa denean soilik, ez arazoizkoa denean. Gainera, adin jakin batean eta lan-ildoa jakin batekin, maitatua izatea ez da zehatz-mehatz ezinbestekoa. Maitasuna sentimendu eskuzabala da, norabide bakarreko kalea. Horregatik, posible da hiriak maitatzea, arkitektura *per se*, musika, poeta hilak, edo, izaera berezia duena, jainko bat. Zeren maitasuna isla baten eta haren objektuaren arteko kontua baita. Hori da, azken buruan, hiri honetara bueltan ekartzen zaituena: mareak Adriatikoa eta, hedaduraz, Atlantikoa eta Baltikoa ekartzen dituen bezala. Edonola ere, ob-

jektuek ez dute galderarik egiten: elementua existitzen den bitartean, bere islak ziurtatuta daude: itzultzen den bidaiari moduan edo amets moduan, ametsa begi itxiaren leialtasuna baita. Hori da gure espezieari falta zaion konfiantza mota, nahiz eta gu, neurri batean, urez eginda egon.



Mundua inoiz literatur genero gisa definituko beharko balitz, bere estilo-baliabide nagusia, zalan-tzarik gabe, ura izango litzateke. Hori gertatzen ez bada, Ahalguztidunak alternatiba askorik ere ez duelako izango da, edo pentsamenduak berak urak bezala jokatzen duelako. Horrela jokatzen dute norberaren idazketak, horrela norberaren emozioek, horrela odolak. Islatzeko ahalmena gai likidoek dute, eta egun euritsu batean ere froga daiteke norbera leialagoa dela beira baino, haren atzean jarrita. Hiri honek zur eta lur eginik uzten zaitu edozein dela eguraldia, aldaera mugatuak ditu eguraldiak, bestalde. Eta gu, neurri batean, uraren sinonimoak bagara, eta ura denboraren sinonimo osoa, orduan leku honekiko sentimenduek etorkizuna hobetzen dute, denborazko Adriatik honi laguntzen diote gure irudi islatuak gordetzen luzaro gu joan eta gero. Isla horietatik, sepia koloreko argazki higtuetatik bezala, denbora agian gai izango da sortzeko, collage baten antzera, etorkizunaren bertsio bat, isla haiek gabe izango litzatekeena baino hobea. Horrela da norbera veneziarra definizioz, zeren, han,

Adriatikoan edo Atlantikoan edo Baltikoan duen baliokidean, denborak-hau-da-urak gure islak —hau da, gure maitasuna leku honekiko— brodatu edo ehuntzen baititu marrazki errepikaezinen arabera, itsasertz honetako irla guztietan ikusten diren beltzez jantzitako atso zimelduak bezala, begiak hondatzen dizkieten parpailetan betiko murgilduta. Egia da itsu edo ero bihurtzen direla berrogeita hamar urte bete baino lehen, baina, orduan, beren alabek eta ilobek ordezkatzuten dituzte. Arrantzaleen emazteen artean, Parkak ez du inoiz inaugurazio bat egunkarietan iragarri behar.

Veneziarrek inoiz egiten ez duten gauza bakarra da gondolaz ibiltzea. Lehenik eta behin, ibilaldiak gondoletan garestiak dira. Soilik turista atzerritarrek, eta haien artetik aberatsenek, ordain dezakete. Horrek azaltzen du gondola-bidaiarien batez besteko adina: hirurogeita hamarreko batek eskola-irakasle baten soldataren hamarrena xahutu ahal du betileak higitu gabe. Romeo aguretu eta Julieta makal horiek ikustea tristea eta deserosoa da, beldurgarria ez esatearren. Gazteentzat, hau da mota horretako gauzak aprobetxatu beharko lituzkeenentzat, gondola bat bost izarreko hotela bezain urruti dago. Ekonomia, jakina, demografiaren isla da, eta hori bi aldiz tristea da, zeren edertasuna, munduaren promesa izan beharrean, saria izatera mugatzen baita soilik. Horrek, parentesi artean, eramaten ditu gazteak naturarantz, bertan plazer debaldekoak, edo, zehatzago esateko, merkeak, libre eta garbi baitaude —gabeturik— arteak edo artifizioak dituzten esanahitik eta asmakizunetik. Paisaia hungigarria izan daiteke, baina Lombardi familia-ko fatxada batek esaten dizu zer egin dezakezun. Eta

fatxada horiek ikusteko moduetako bat —jatorrizko modua— gondola batetik da; ikus dezakezu, horrela, urak ikusten duena. Jakina, ezer ez dago bertakoen eginbeharretatik urrunago, korrika eta presaka haien eguneroko joan-etorrietan aritzen diren bitartean, erabat axolagabe, baita alergiko ere, inguruan duten bikaintasunaren aurrean. Veneziarrak gehienez jota gondola batera hurbiltzen dira Ubide Handiaren ertz batetik bestera igarotzen direnean, edo erosketa astun bat —garbigailu bat, esate baterako, edo sofa bat— etxera eramane behar dutenean. Baina ez gondolari batek, ez ontzi-jabe batek ez lukete horrelakoetan «O sole mio» kantatuko. Beharbada bertakoaren axolagabetasunak artifizioak berak bere islarekin duen axolagabetasunaren ereduari jarraitzen dio. Hori izan liteke gondolaren aurkako argudio erabakigarria bertakoentzat, gaueko ibilaldi baten proposamena bakarrik indargabetu dezakeena. Behin tentaldian erori nintzen.

Ilargiak argituriko gau hotza eta lasaia zen. Bost ginen gondolan, jabea barne, bertako ingeniari bat, bera eta neskalaguna batera aritu ziren arraunean. Aurrera egin genuen astiro sigi-saga aingira baten antzera, gure buru gainean genuen hiri leizetsu, huts eta isilean barrena, ordu berant hartan koralezko uharria, gutxi gorabehera angeluzuzena ematen zuena edo haitzulo hutsen segida bat. Sentsazioa oso berezia izan zen: zeharkatzean kanpotik begiratzea ohituta zaudenaren barru-barruan mugitzea —ubideetan— dimentsio berri bat hartzea bezalakoa zen. *Lagunara* berehala atera eta hildakoen irlarantz, San Michelerantz, abiatu ginen. Ilargiak, goi-goian, hodei baten sinadurak zeharkatutako t letra txundigarri misteriozua zirudien eta ozta-ozta uzten zuen arrasto bat ur azalean, gondolaren irristatzea isila zen

guztiz. Bazen zerbait nabarmenki erotikoa gorputz txikia ur ganean egiten ari zen ibilbide isil eta arras-torik gabea, zure maitearen azal leunean esku ahurra irristatzen duzun bezalatsu. Erotikoa, ondoriorik ez zegoelako, azala amaigabea eta ia mugiezina zelako, laztana abstraktua zelako. Gu barruan ginela, astun samarra zen gondola agian, eta urak behera egiten zuen une batez, hurrengo segundoan hutsunea berehala ixteko. Gainera, gizon batek eta emakume batek gidatua, gondola ez zen batere arra. Erotismoa zen, bai, baina ez generoena, elementuena baizik, bi azal berdinki lakatuen bateratze perfektua. Sentsazioa neutroa zen, intzestutik gertu ia, gizonak arrebari, edo emakumeak nebari eginiko laztanak ikusiko bazenitu bezala. Hilda-koen irla inguratu eta Cannaregio-rantz abiatu ginen... Beti pentsatu izan dut elizek gau osoan irekita egon beharko luketela; Madonna dell'Orto elizak behintzat, ez hainbeste arimaren oinazeen une probableagatik, baizik eta bertako Bellini-ren *Ama Birjina Haurrarekin* zoragarriagatik. Han lehorreratu nahi nuen, eta margolanari begiratu bat eman, amaren ezkerreko eskutik haurraren oinera doan hazbeteko tarte horri. Hazbete horrek —ai, gutxiago— maitasuna erotismotik bereizten du. Edo agian erotismoaren azken muturra da. Baina eliza itxita zegoen, eta aurrera egin genuen haitzuloen tunelean barrena, Piranesi batek marraztutako meategi abandonatu, lau eta ilargiak argiturikoan barrena, mineral elektrikoen distira bakanekin, hiriaren bihotzeraino iritsi arte. Hala ere, orain banekien urak zer sentitzen duen urak laztantzen duenean.





Bauer Grünwald Hoteleko kutxa zementuzkoaren ondoan lehorreratu ginen, gerra ostean berreraiki zuten hotela, gerran bertan bukaera aldean bertako partisoen leherrarazi eta gero, han komando alemana zegoelako. Begiak mintze aldera, konpainia ona du bertan: San Moisè eliza, hiriko fatxadarik jendetsuena. Elkarrekin zera ematen dute, Albert Speer pizza *capricciosa* bat jaten. Ez naiz hotelera inoiz sartu, baina jaun aleman bat ezagutu nuen, kutxa moduko egitura horretan ostatu hartu eta oso eroso aurkitu zuena. Ama hiltzen ari zitzaion, bera hemen oporretan zegoen bitartean, eta egunero hitz egiten zuten telefonoz. Hil zenean, gizonak azaldu zion zuzendaritzari telefonoa, gailua bera, erosi nahi zuela. Zuzendaritzak eskaera ulertu eta telefonoa fakturan sartu zuen. Baina seguraski gizon hura protestantea zen, eta San Moisè eliza katolikoa, gaeuz itxita dagoen horietakoa, jakina.



Guztion bizilekueetatik distantzia beretsura egonik, beste edozein leku bezain ona zen hura lehorreratzeko. Ordubete inguru behar da hiri hau oinez zeharkatzeko, hartzen den norabidea hartzen dela. Hori, noski, zure bidea ezagutzen baduzu, nik ezagutzen nuen bezala gondola horretatik atera nintzenez. Elkarri adio esan, eta bakoitzak bere bidea hartu zuen. Nire hotelerantz abiatu nintzen, nekaturik, ingurura begiratzen saiatu ere egin gabe, nire kolkorako Jainkoak-daki-nondik-ateratako esaldi bitxiak marmarka, adibidez, «Erre herria» edo «Ez hiririk, ez errukirik». Hasierako Auden ematen zuen horrek, baina ez zen, ez. Bat-batean zerbait edateko gogoa piztu zitzaidan. San Marcorako bidea hartu nuen, Florian oraindik zabalik egongo zelakoan. Ixten ari ziren, arkupeko aulkiak jaso eta leihoetan egurrezko oholak jartzen. Zerbitzaria arropak aldatuta zegoen jadanik etxera joateko, baina apur bat ezagutzen genuen elkar, eta negoziaketa labur bat izan ondoren, helburua lortu nuen; eta helburua eskuan, arkupetik kanpora atera, eta piazza arakatu nuen. Erabat hutsik zegoen, ezta arima bat

ere. Bere lauhun leiho arkudunek ohiko ordena narritagarriari eusten zioten, olatu idealizatuek bezala. Ikuspegi honek Erromako Koliseoa ekartzen dit beti gogora, non, nire lagun baten hitzetan, norbaitek, arkua asmatu eta gero, ezin izan zuen gelditu. «Erre herria», xuxurlatzen nion nire buruari oraindik. «Ez hiririk...». Behe-lainoa *piazza* irensten hasi zen. Inbasio isila zen, baina inbasioa, hala ere. Bere lantza eta arpoiak ikusi nituen, isil mugitzen zen baina oso arin, *lagunaren* aldetik, zalditeria astunaren aurretik datozen oinezko soldaduak bezala. «Isil eta arin» esan nion nire buruari. Edozein unetan ager liteke haien erregea, Laino Erregea, kantoitik bueltan, bere kumuluzko loria osoan bildua. «Isil eta arin» errepikatu nion nire buruari. Auden zen hori, orain, «Erromaren erorketa» poemaren azken lerroa, eta leku hauxe zen poemaren agertzen den «han nonbait» hura. Bat-batean sentitu nuen Auden nire atzean zegoela, eta ahal bezain azkar jiratu nintzen. Florianeko leiho altu eta leun batek, nahiko ongi argiztaturik eta egurrezko ohol batez estalita ez zegoenak, distiratzten zuen laino artean. Leihorantz hurbildu eta barrura begiratu nuen. Barruan 195? urtea zen. Fel-pa gorrizko sofetan eserita, kremlin bat osatzen zuten edariz eta teontziz estalitako marmolezko mahai txiki baten inguruan, bazeuden Wystan Auden bere amodio handiarekin, Chester Kallman-ekin, Cecil Day-Lewis eta bere emaztea, Stephen Spender eta berea. Wystan istorio dibertigarriren bat kontatzen ari zen eta denek barre egin zuten. Istorioaren erdira iritsita, marinel morrosko bat pasa zen leiho aurretik; Chester zutitu, eta «Gero arte» bat ere esan gabe, ehizara joan zen. «Wystani begiratu nion», kontatu zidan Stephenek urte asko geroago. «Barrez segitzen zuen, baina malko bat zerion masailetik behera». Leihoa ilundu zen, ni-

retzat, une hartan. Laino Erregea *piazzara* zaldiz sartu zen, garañoa bridatuz, eta bere turbante zuria zabaldu zuen. Botak bustita zituen, baita galtza zabalak ere; piztutako lanparetatik zetozen bitxi ahul eta miopeez estalita zeukan kapa. Horrela zegoen jantzita, ez baitzekien zein mende zen, are gutxiago zein urte. Baina, egia esan, lainoa izanik, nola jakingo zukeen?



Utzidazue errepikatzen: Ura denboraren berdina da, urak edertasunari bere doblea eskaintzen dio. Guk, ura ere neurri batean, edertasuna modu berean zerbitzatzan dugu. Ura ukitzean, hiri honek denboraren itxura hobetzen du, etorkizuna edertzen du. Horixe da hiri honek unibertsoan duen papera. Zeren hiria estatikoa baita, gu mugitzen garen bitartean. Malkoa horren froga da. Zeren gu joaten baikara eta edertasuna gelditzen baita. Zeren gu etorkizunerantz abiatzen baikara, edertasuna betiereko oraina den bitartean. Malkoa bertan geratu, gibelean gelditu, hiriarekin bat egiteko ahalegina da. Baina hori arauen kontra doa. Malkoa itzulera bat da, etorkizunak iraganari egiten dion omenaldia. Edo, bestela, txikienari handiena kentzearen ondorioa da: gizakiari edertasuna. Berbera gertatzen da maitasunarekin, zeren gure maitasuna ere gu geu baino handiagoa baita.

1989ko azaroan





## HITZATZEA

### ZERGATIK LIBURU HAU?

Venezia 1990ko otsailean bisitatu nuen lehen-dabizikoz, sandinistek (garai hartako sandinistek) hauteskundeak galdu zituztenean. Norbaitek erositako egunkari batean jaso nuen albistea Buranora zihoan vaporetto batean. Izan ere, lankide batzuekin nengoen han (agur eta ohore, Laudioko institutuko irakasleok!) inauterietan genuen oporraldia aprobetxatuz. Venezian ere inauteriak ziren, eta hiria, nola ez, gu bezalako turistez beteta zegoen. Hala ere, jendetza, Bilbotik Veneziaraino autobusez egindako bidaia luze neketsua eta hiritik kanpo, urrun, kokaturik zegoen hotela ez ziren ezer izan Veneziak nigan sortu zuen lilura berehalakoan: Veneziak sorgindu ninduen eta nik sorginkeria eztabaidarik gabe onartu nuen. Apur bat lotsaturik, aitortu beharko dut. Edozein sorginkeriak, dena den, ni deitzen den gauza hori ezabatzen du, neurri handi batean behintzat.

Gogoia, burua edo aldartea sorginkeriarako prest nuen, horrelako kasuetan gertatu ohi den bezala. Veneziako irudiak han eta hemen ikusiak nituen, ur gainean eraikitako hiri horrekiko jakin-mina, artea, zinema,

historia, erreferentzia musikalak (Vivaldi eta Monteverdi, baina baita Wagner eta Mahler ere) eta, jakina, literaturarekin zerikusia dutenak (zerrenda amaigabea izango litzateke: Goethe, Rilke, Proust, George Sand, Thomas Mann...) ongarri ezin aberatsagoak ziren mota guztietako sorginkeriak, sorgintasunak hobe, mardul hazteko. Veneziar adjektiboak, poesiarekin lotzen zenean, bazuen, badu, gainera, imanak burdina bezala erakartzen ninduen esanahi zalantzazko eta anbigua, gutxiesgarria baina dotorea, gainbehera adierazten duena eta aldi berean duintasuna, sakontasuna azalkeriaren atzean ezkutatzen duena, etika estetikaren atzean: dekadentziaren ametsa, eta, Brodskyk idazten duen bezala, gaztetan apur bat dekadentea izan ez denak ez du bururik. Niri buruan Pere Gimferrer-en *Oda a Venecia en el mar de los teatros* (1966) bueltaka zebilkidan.

Beraz, 1990eko otsailean itzulerako prestatzen ari ziren lankideak agurtu, nituen lirak eta pezetak zenbatu, aurkitu nuen locanda merkeenean (merke hitzak Venezian har dezakeen zentzuan) ostatu hartu eta bakarrik gelditu nintzen hirian hiruzpalau egun gehiago. Hurrengo egunean turista kopurua nabarmen jaitsi eta behe-lainoa jabetu zen hiriaz. Nik Venezia ikusi edo aztertu beharrean, sentitu nuen Venezia ni ikusten edo aztertzen ninduela, bere mailan nengoen ala ez egiaztatu nahi izango balu bezala. Subjektua izatetik objektua izatera pasatzen ari nintzen, eta hiria objektua izatetik subjektua izatera. Hirugarren egunean hiriak eta urak dir-dir egin zuten eguzkipean. Buel tako trenean (Venezia-Milan-Genova-Hendaia-Gasteiz), xentimorik gabe, jakin banekien sorginkeriak betiko iraungo zuela.

Hiru hilabete lehenago, 1989ko azaroan, Joseph Brodskyk Venezia buruzko liburua bukatu zuen. Con-

sorzio Venezia Nuova erakundeak enkargatu zion hiria 1972tik urtero bisitatzen zuen poeta jadanik saritu eta ospetsuari; erakundeak berak argitaratu zuen italieraz, 1989an bertan, merkatura atera ez zen edizio berezian *Fondamenta degli Incurabili* izenburupean. Brodskyk liburua ingelesez idatzi zuen arren, lehen argitalpena italierazko itzulpena izan zen. Badirudi liburua itzulia izateko jaio zela. Horra hor, liburua euskaratzeko aitzakietako bat. 1991n iritsi zen liburu-dendetara lehen argitalpen arrunta, italieraz, Adelphi Edizioni etxearen eskutik izenburu berberarekin. Gilberto Forti izan zen itzultzailea.

Hurrengo urtean, 1992an, agertu zen azkenik jatorrizko testua, ingelesezkoa, beste izenburu batekin: *Watermark. An Essay on Venice*. Pentsatzekoa da Brodskyk ez zuela *Fondamenta* hitz veneziarra, gainerako italiarrek ulertu ahal dutena, erabili nahi izan ingelesezko irakurleentzat, *The Embankment of the Incurables* (*Senda ezinezin Kaia*) nahasgarria izan zitekeelakoan, itsusia edo, txarragoa dena, sinbolikoegia. *Fondamente* (pluralean) dira Venezian ubide askoren ondoan dauden kaiak zamaketa lanak, ontziratzekak eta lehorreratzekak errazteko. Gaur egun *Fondamenta degli Incurabili* horretako horma batean Brodskyk leku hura maite eta kantatu zuela dioen oroitarria dago errusieraz eta italieraz, Italian horrelako oroitarrietan erabiltzen den hizkera bihurritik aldentuta. Jatorrizko liburua, ingelesezko edizioa alegia, ez oso zuzendua baina bai handitua atera zen: zati guztien hasieran zeuden zenbakiak desagertu ziren; zati batzuk elkartu eta beste batzuk luzatu, Brodsky liburua lantzen aritu zen italierazko edizioa argitaratu eta gero.

1992an liburua frantsesez agertu zen izenburua berriro aldatuta: *Acqua alta*, itzultzaileak Benoît Coeuré eta Véronique Schiltz ziren.

Ez nuen Brodskyren liburuaren berri izan harik eta 1993ko egunen batean Gasteizko liburu-dendaren batean gaztelaniaz topatu nuen arte: *Marca de agua*. *Apuntes venecianos*, Horacio Vázquez Rial-ek itzulita. Liburuak sorgindu ninduen, hiriak bezainbeste. Gogoia, burua edo aldartea sorginkeriarako prest nuen oraingoan ere, bi urte lehenago irakurri nuen Brodskyren poema liburu batean *Laguna* (Veneziakoa, jakina) izeneko poema batek hazia erein zuelako nigan. Poemak *Ur-marka* honetan agertzen diren irudiak, ideiak eta motiboak (baita Auden bera ere) laburbiltzen ditu liburua bera idatzi aurretik, bi testuak denboraren tolesdura berberean jaio izan balira bezala. *Laguna* (errusieraz idatzia) 1973koa da, Eguberrietan idatzia, poema beretik ondorioztatatu ahal denez. Agian 1972-1973ko neguan, hau da Brodskyk Venezia bisitatu zuen lehenengo aldian? Poemaren hasieran eta liburu honetan agertzen den Accademia ondoko ostatu merkeak hori pentsatzeko aukera ematen du behintzat.

Liburuak sorgindu ninduen, beraz. Egia da Veneziarekin zerikusia zuten liburu asko irakurriak nituela, baina Brodskyrena bestelakoa zen, oso bestelakoa; ez, noski, gida liburu bat, ez turistak bisitatzen ez dituzten leku bereziak bisitatzeari gomendatzen duen horietakoa, ezta bidaia liburua ere. Zalantza egiten dut Venezia bera den liburu honen gai nagusia; Venezia aitzakiatzat harturik, Brodsky, denborari buruz eta urari buruz (sinonimoak berarentzat, azken buruan) hausnarketan aritzean, saiatzeko da azaltzen nola denbora eta ura gauzatu diren Venezia deituriko

leku batean, edo nola Venezian denbora bera ikusgai bilakatu den, begiratu ahal dugun fenomenoa. Denbora aipatzen denean, iragana, oraina eta geroa datoz, bizitza eta heriotza, arbasoek utzitakoa eta gure huskeria, gure ezereza. Agian begirada da liburu honen gai nagusia, Venezia begiaren paradisua baita Brodskyren ustez.

Liburua irakurri bitartean, berpiztu zitzaizkidan aspaldiko sentsazioak eta berriak gaineratu ziren, nire irudiaren isla, hiriarena uretan bezala, hortxe, liburuan bertan, ikusi nuelako: barre egin nuen, tristetu, alaitu, norbera eta norberaren kezka ez direla garratzizkoenak ikasi. Eta euskal irakurleak liburu batzuen aurrean egiten duen derrigorrezko galdera egiten nion nire buruari etengabe: zergatik ez dago liburu hau euskaraz?

Urte asko igaro ziren Veneziaara itzultzeko aukera izan nuen arte. Geroago, bat-batean hiruzpalau bidaiara etorri ziren, beti neguan, ez nahita, kasualitatearen gurpilari esker: behe-lainoan galdu (erraza da Venezian galtzea), haize-erauntsiekin gozatu (eta euritako pare bat apurtu), oinak busti (eta oinetakoak hondatu), *Watermark* euskaratzearekin amets egin. Edertasuna.

Zer egin edertasunaren aurrean? Zbigniew Herbert poeta poloniarrek ematen duen erantzuna zuzenena iruditu zait beti: berarentzat guztiz naturala da artelan baten aurrean ziurtasunik eza sentitzea (gogoratu Brodskyrentzat Venezia bera dela artelana, ez artelanen bilduma edo artelanen edukiontzia). Artelaneke gure ziurtasun harroa eraitsi egiten dute, zalantzan jartzen dute gure balioa, gure errealitatearen zati bat lapurtzen digute, gure joan-etorri zoroak geldiarazten dizkigute, geure burua hain serio hartzeagatik ba-

rregarri uzten gaituzte, gure banitatea eta ergelkeria berehala antzeman eta gure ustezko aurrerapenak eztabaidatzen dituzte. Herbertentzat bide bakarra dago edertasunaz gozatu ahal izateko: isiltasuna, ahalegina eta apaltasuna, ordainean norberak sortzeko gai ez den argia jaso daiteke orduan. Bere burua ahantzi egin behar du gogoia artelanean lasaitasunez, duintasun / dotoreziaz eta irradiazioaz bete nahi duenak.

2020ko otsailean, pandemiaren lehen atzaparrak Italia urratzen hasi zirenean, Venezian negoen, Iñaki Alfaro irakasleak gonbidatuta, Angel Errorekin eta Unai Lauzirikarekin. Goiz batean Angel, Unai eta hirurok Scuola Grande di San Rocco (nire leku gogokoenetako bat) bisitatu genuen: bisitaren bukaeran, bertako dendan Joseph Brodskyren Watermark aurkitu nuen. Geroago, kanpoan, Campo San Rocco-n eserita, liburu eskuan, Brodskyz eta liburuaz aritu nintzen (ez astunegi, espero dut), nire ametsetako bat zela euskaratzea eta abar. Arratsaldean Veneziako liburu-denda ospetsuan, Acqua alta-n, Angelek liburu bat seinalatu zidan: «Begira, Brodsky, beste liburu bat». *Fondamenta degli Incurabili* zen. Ez zela beste liburu bat azaldu nuen, liburu bera baizik, eta hemen zirriboratu dudan istorioa kontatu nien. Handik egun gutxira Turinen (Primo Levi, Cesare Pavese, barkatu mitomania) Watermark eta *Fondamenta degli Incurabili* aurrean nituela, itzulpenari ekin nion. Brodskyren poema labur bat bakarrik aurkitu nuen euskaraz: *Iparburuko esploratzailea*, Koldo Izagirrek itzulia.

Joseph Brodsky Veneziako San Michele irlahilerrian hilobiratu zuten, alde protestantean, Ezra Pound-en hilobitik ez oso urrun (paradoxa ez da barkabera hildakoekin); hilarriaren atzealdean Propertzioren esaldi bat irakur daiteke: *Letum non omnia finit* (Heriok

ez du dena amaitzen). Euskaraz, behintzat, Brodskyren liburu hau bizirik egongo da apur bat gehiago Katakra-kekoi esker.

Rikardo Arregi Diaz de Heredia  
Gasteiz, 2022ko urtarrila





## HITZATZEA

### BEGIAREN POETIKA

Oker dabil Veneziaz gehiago jakiteko asmoz liburu honetara hurbildu dena. Hemen ez zaigu hiriaren muinera sartzeko eta hura ezagutzeko giltzarik eskaintzen, ez dago idazlearen toki kuttunen zerrendarik, txoko sekretuen errebelaziorik, oroigarri enblematikoen aurkiberririk, haien gaineko interpretazio ikusgarririk edo bizipenen kronikarik. Izan ere, irakurlea kontrakoaz harritu daiteke. Joseph Brodsky aitortzen digu Venezia hainbeste urtez joan arren ez duela bertakoekin benetako kontakturik ezartzea lortu («oso gutxitan zeharkatu ditut etxe arrunten sarrerak hiri honetan. Tribuek ez dute arrotzik atsegin, eta veneziarrak oso tribalak dira, uhartetarrak izateaz gain»); beraz, ez digu hiriaren *connoisseur* bat izateko txepelkeria sakatu nahi. Idazleak beste zerbait eskaintzen digu hemen. Bidai gidatik zerbait badu, barnera begirako bat litzateke, zeinarekin, guk Venezia gabe, Venezia gure buruaren txoko ez turistikoegiak ezagutzen lagunduko bailiguke. Baina nik uste dut gehiago asmatuko genukeela Brodskyren poesiaren irakur gizatatzat hartuko bagenu.

Poeta Veneziaara egindako lehen bidaian, 1972an, idatzitako *Laguna* izeneko olerkian dagoeneko ageritzen dira, garatu gabe, edo senaz iragarrita, ia hogeitau urte beranduago *Ur-markak* saiakera honetan jorratuko diren hainbat irudi eta intuizio.<sup>1</sup> Gauza bera gertatzen da 1982ko *Veneziar ahapaldiak* poema parearekin.<sup>2</sup> Batek irudipena izan dezake hiriak poetarengan utzitako lehen zirrara haiek baieztatu eta haietan sakontzeko saiakerak baino ez direla hurrengo bisita guztiak, bere buruari (edo bere irakurleei) guztiz argitu arte metafora bakoitzaren atzean zer ezkututzen den. Ezin bestela, beharbada. Joseph Brodskyk ezin du ingurukoari pentsamendu poetikoa aplikatzea saihestu. Errealitateak sorrarazten dion irudi poetikoa azken ondorioetaraino garatuko du beti: Venezia sentipen mitologikoa, «ziklopeoa», pizten badio, hortik eratorriko da eraikinak ur beltzetan belaunetaraino sartuta dauden erraldoi lotiak izatea, «noizbehinka betazal bat igo eta jaisten» dutenak. Ezra Pounden alargunaren atzamar ohartarazlea gramofono zahar bateko orratz bihurtuko du, zeinarekin diskurtso higitu baten melodia aspergarria entzunaraziko dien (senarrak faxismoarekin kolaboratu zuenik ukatzearena), «1945az geroztik gutxienez denen ahotan ibili den partiturrekin»; «bere nagusia-

---

1 Orduko poema horretan dagoeneko «Veneziako kanpaiek te kikaren moduan egiten zuten dilin», «arbaso ornodun» deitzen die arrainei, «uhinetatik jariatzen da denbora», «presentea besterik ez dute gabardinadun gorputzek» edo «begiak eusten dio hutsuneari, gogoak berak baino irmoago».

2 Poema pare honetan ere *Ur-marka* liburuaren irudi asko agertzen dira; hemen ere leihoak «kanaletatik ateratzen diren ezkatark» dira, zursareak brankiak, eraikinen barneko «brontzeko markodun olio-margolanak, isats-piano baten zatia» erdizka ikusten uzten dituztenak; turiston kamera lizunek jazarritako Susana bat da hiria, bere burua bainatzen ari dena; «argiak betazala irekitzen du, oskol bat bezala» eta, azkenean, urmaelaren «milaka distira txikik begi grisa dute aztoratzen / ni gabe ederki egoteko gai den paisaia hau / gogoan atxikitzearen adoreaगतिक».

ren ahotsa», ondorioztatzen du, izen bereko disko etxe britaniar mitikoa gogora ekarriz. B aldeare badu, jakina, diskoak.

Metaforak gidatzen du poetaren pentsamendu haria. «Metafora batek (...) jarraipena desiratzen du: hil ondoko bizitza bat». Veneziaren ezaugarriak behinena urak inguratu eta zeharkatutako hiria izatea da. Hiri akuatikoaren irudi horrek atzera eginarazten dio, uretan ibiliko ziren gure arbaso animaliangana, lehen arrain edo aingira horiengana, hiriarekiko sentitzen duen lilura, berak atabikotzat jotzen duen atxikimendua, ulertuko badu.<sup>3</sup> Urak ere begiaren presentzia eskatzen du («zeren begiak, gure organo gordin bakarrak, arrain gisakoak, igeri egiten baitu hemen benetan»). Venezia begiaren hiria da, beraz, non ikusmena («gainerako zentzumenek bigarren mailako papera ahula baino ez dute» eta Veneziatik «alde egiteak begiaren erbesteratzea dakar nora eta beste zentzumenen lurraldeetara») inolako loturarik gabe librea den, edertasunak erakarria. Artea bera begiak edertasunari eusteko duen ezintasunean oinarrituko zen. Edertasuna, bere aldetik, espazioak edo formak bere gutxiagoan denborari kontrajar dion ezaugarri bakarra da. Horrela doa, pixkanaka, Joseph Brodsky kontzeptuak elkarlotzen (argia, malkoa, ametsa, ispilua...), logika estreinatuz, gu lurretik gogoeta metafisikoetara eramanez, ez bakarrik Venezia, inguratzen gaituen guztia modu berri batean ulertzera,

---

3 Atzera begirako gogoeta antzekoa egiten du beste saiakera batean: «Baliteke Europako kultura osoa, bere katedralekin, bere arte gotikoarekin, bere barrokoarekin, bere rokokoarekin, bere kiribildura eta bere akanto hostoekin, tximinoak oihan galduaz sentitzen duen oroimina baino ez izatea». (After a Journey, or Homage to Vertebræ, in *On Grief and Reason*).

funtsezko zerbait ezagutarazi zaigula pentsatzera,  
benetako poeta baten aurrean egon garela ospatzera.

Angel Erro  
Madril, 2022ko urtarrila

## ARGITALETXEAREN OHARRA PALAZZO, TERRA FIRMA, NEBBIA, VAPPORETTO

*Musika eder bat entzuten da  
inguruan negua esnatzen den bitartean.  
Garbi dago bizitzaren portuan  
heriotzak agintzen duela.*

Anna Akhmatova

Henry James-ek kontatzen du *The Portrait of a Lady* (1880) emanaldikako eleberraren AEBko edizioaren hitzaurrean nolakoa izan zen liburu sonatuaren idazketa. Eleberria luzea da eta Jamesek onartu zuen luze joan zitzaiola idaztea. Tartean Venezian egokitu zitzaion aste batzuz lanean egotea. Riva Schiavoni-n hartzen zuen ostatu, San Zaccariara zihoan bidetik gertu, etxe baten azken solairuan. Venezia sartzen zitzaiion leihoetatik, murmurioa, kanalak, urmael ederra. Jamesek aitortzen du oso erakarria sentitu zela. Hiria begiratzen zuen baina hiriak irensten zuen. Idazleak esaldi bikainenaren bila ari zen, trama ahalik eta hoberen garatzen saiatzen. Bizipen eder hura kaltegarria izaten hasi zen, hiri aberatsegia zen hura, denak esanahi gehiegi zeuzkan, ia ezinezkoa zen bertan egon eta

tokiaz pentsatzen eta idazten ez aritzea. Veneziak, Jamesen hitzetan, ez dizu ezer maileguan ematen, eman egiten dizu handitasunez. Beraz pertsonaia bati buruz eta pertsonaia baten erabakiei buruz idazteko grina zuen James hura, zarata handi batek estutzen zuen, zarata eder eta boteretsu batek, hiri baten gehiegizko presentziak.

### **Nor izan ote zen Brodsky**

Jean-Baptiste Para-k, *Cinq poètes russes du XXe siècle* (Gallimard 2005) antologian adierazi zuen Brodskyren obraren ezaugarri nabarmenenak zirela «estoizismoa, ironia, indarra, birtuosotasun liluragarria, ainguratze bikoitza kultura errusiarrean eta mendebaldekoan». Puxkinekin lotu zuen zuzenean, besteak beste, forma poetiko guztiak landu zituelako: oda, elegia, balada, poema filosofikoa. XX. mendeko errusiar poesian tonu aski adierazgarri bat sortu zuen, metrikak eta sintaxiak oso fin erabiliz. Zeren Brodskyrentzat poeta da «tresna baten eta gizaki baten arteko konbinazio bat», lehenengo aldaera izaten delarik bigarrenari gailentzen zaiona. Denborak gizakiarengan dauzkan eraginek kezkatzen zuten: «Hondakinak oxigenoaren eta denboraren garapena dira». Eta poemak? «Patuaren atentatuen eta gorputzen zaugarritasunaren aurrean dauden muga bakarrak dira».

1940ko maiatzean jaio zen Leningraden, urari jandako hirian. Utzi zuen eskola hamabost urterekin, egin zuen lan fabrika batean, komun publiko batzue-tako garbategian. Ikasi zituen hizkuntza asko, hasi zen aldizkarietan poemak argitaratzen eta 1963an atxilotu zuten. «Parasitismo soziala» egotzi zioten eta 1964an bost urteko lan behartuetara zigortu zuten. Artista so-

bietarren presioari esker urte t'erdikoa izan zen zigorra azkenean.

1972an SESBetik alde egitera bultzatu zuten tokiko autoritateek eta AEBetara bidean, Austrian, W. H. Auden ezagutu zuen, Brodskyren aburuz XX. mendeko bururik pribilegiatuena izan zen. AEBetara azkarren eta, Nabokovekin batera, hoberen moldatu zen poeta errusiarra izan zen, ingelesez ere idatzi zuen (*Ur-mar-ka*, esaterako).

Parak idatzi zuen Brodskyk ez ziola inoiz tokirik egin nahi izan nostalgiari. Ez zen soilik urguilu kontu bat hezkuntza kontu bat ere bazen. Brodskyri buruz idatzi zuen saiakera sonatuan, Audenek nabarmendu zuen poetak gizartearen aurrean betebeharrak bat bazuen, hori zela ongi idaztea. Poeta gutxiengo baten parte zela eta ez zuela beste aukerarik. Betebeharrak hori burura eramaten ez bazuen ahanzturan murgilduko zela. Eta argia zen Auden: gizarteak ez dauka inolako betebeharririk poetarekiko.

Jorge Bustamantaren aburuz (*El instante maravilloso. Poesía rusa del siglo XX* apailatu eta editatu zuen) Audenek nabarmendu zuena izan zen Brodskyren bizitzako helburua: autodidakta infinitua izan zen eta bere bizitzako helburu bakarra ongi idaztea izan zen.

Aldizkari militar bateko argazkilaria profesionala izan zuten aita eta itzultzailea ama, haurtzaroan nazien setio basatia, bi urtetako muturreko miseria bizi izan zuen. Eskola utzi ostean pulunparien eskola batean sartu nahi izan zuen baina ez zuten onartu. Espedizio geologikoetan ere aritu zen SESBeko toki ezberdinetan: Jakutian, el Tian Xan-en, Kazakhstanen, Itsaso Zuriko kostaldean. Krestu ospitaleko gorputegian ere aritu zen lanean. Baina bitartean poesia irakurtzen zuen bereziki.



Ikasi zuen poloniera, itzuli zituen poeta asko errusierara (Tomas Benclova lituanieratik, Zheslav Milozs, Ciprian Kamil eta Idelfons Galchinski polonieratik, Witezhlav Nezhval txekieratik, Umberto Saba eta Salvatore Quasimodo italieratik, Pablo Armando Fernandez eta Virgilio Piñera gazteleratik edota Robert Lowell eta John Donne ingelesetik; Jugoslaviako eta Herbeheretako poetak ere eramán zituen) eta Evgeni Rein, Anatoli Naiman eta Dmitri Bobuixev-ekin batera ibili zen 1962tik aurrera Anna Akhmatovaren babesean. Talde hura Akhmatovaren umezurtz gisa ezagutzen da gaur egun. Bere bizitzan zehar sarritan aipatu zuen Brodskyk Akhmatovaren obra, Mandelstamekin batera gehien aipatu zuen egilea izan zen.

### **Alfabeto bat**

Brodsky inoiz ez zen abangoardista bat izan. Errimari eta metrikari ematen zion garrantzia bereziki eta sentitzen zen Frost, Auden eta Thomas Ardyrengandik gertu. Mandelstamek bezala uste zuen artean iraultzak, ezinbestean, klasizismora gidatzen zaituela. Berarentzat poesia zen bereziki erreferentziak, alusioak, paralelo linguistikoak eta figuratiboak lantzea.

Poeta bidaiari bat izan zen, ez ote diren poeta guztiak bidaiariak nahiz eta beren auzotik ez atera. Berean daude estepa eta Nevski prospettiva, Ameriketako paisaietatik Reforma kalera, Mexikotik Teotihuacan eta, noski, hogeí Eguberri pasa zituen Veneziako artxipelago.

Bidaiak dira tokiak baina izenak ere badira, Urmarkan bere egiten ditu: *palazzi stazione Canal Grande Accademia pensione campo campanile frontone palazzo terra firma putti nebbia vapporetto trattoria*. Eta oso estimatzekoa izan da *viaggio* honetan Rikardo Arregi eta

Angel Errorekin batera joatea, *vapporettoz vaporetto* eta ez *gondola* dekadenteetan.

Iruñea  
2022ko otsaila





**Nr. 15**

Liburu hau 2022ko otsailaren 13an bidali genuen inprentara. 139 urte lehenago Richard Wagner konpositore, zuzendari eta poeta Veneziako *pallazzo Ca'Vendramin* Calergi-n hil zen 69 urterekin. Canal Grandeko eraikin berean konposatu zuen *Tristan eta Isolde*, artearen historia irauli zuen drama musikala.











